

GIPUZKOARROK
garaile!
con  *ehbildu* ganamos todas

HAUTESKUNDE PROGRAMA

Gipuzkoa 2015

 **ehbildu**



2015eko apirilaren 20ean.

SAR HITZA

Hauteskunde atariko abagune honetan bere helburu politiko nagusiak irmoki finkatu ditu jada EH Bilduk. Burujabetza eta eraldaketa soziala nazioarteko egoeraren ardatz bilakaturik, erabakitze eskubidea eszenatoki politikoaren erdian kokatzea, Euskal Bidearen eskaintza herritarrekin hezurramitzea eta Fronte Zabala sortu eta egituratuz, EH Bilduk aldaketa politiko eta sozialerako tresna gisa gorpuztea dauka eginbehar nagusi.

Hori guztia ez da egun batetik bestera egingo. Pausoz pauso eta herriz herri burutu behar dugun lana da, eta euskal jendartearekin, oraingo estatusa errotik gainditu nahi duen gehiengoarekin, aldaketaren ardatzean bat egin nahi dugu. Bide horretan une eta aukera paregabeak dira 2015eko udal eta foru hauteskundeak, gure proposamen integralaren zer-nolakoak baitira PROGRAMA eta ESKAINTZA POLITIKOAREN zutabeak.

Erronka honek, ezin uka, ezaugarri bereziak izango ditu Gipuzkoan. 2011-2015 legegaldian Foru Aldundia, Donostia eta hamarna udaletxetan Bilduk gobernatu du. Orduz geroztik, EH Bilduk osatu eta kontsolidatu egin ditu bere aukerak Gasteizko legebiltzarrerako eta Europar hauteskundeetan, Gipuzkoako herritarren konfiantza bereganatuz. Aipatu konfiantza aldaketaren nahiaren eta eredu berri baten zehaztapenaren gainean eraiki da, eta atzera begira baino, guk geuk sortu ditugun aukera eta zereginen aurrean kokatu beharko gaitu. Abiatu dugun aldaketaren mamia eta bidea ondo azaltzearekin batera, jarraikortasuna, kudeaketa gardena, irekia, arduratsua eta parte hartzailea sustatu behar ditugu.

Sinesgarriak garela erakutsi dugu, izan ere, oposizioak iragarri zituen pronostiko txar guztiak ez baitira gauzatu. Gipuzkoa ez da lurralde perfektua Euskal Herria astintzen duen krisiaren testuinguruan, baina bultzatu ditugun politikak eta inizatibak ondoko gobernuenak baino eraginkorragoak izan dira. Gipuzkoarrek ikusi dute beste era batera goberna daitekeela, diru publikoarekin arduratsuak eta erabat garbiak izanez, azpiegitura handietan dirua xahutu gabe, eta gizarte politiketan murrizketarik egin gabe. Nolanahi ere, hori eta askoz gehiago espero da gugandik: eredu aldaketa, alternatiba integralak eta burujabetzaren bidean urratsak emateko jaso ditugu bozak. Gipuzkoa errotik aldatzeko. 2015-2019 legegaldia azken azterketa izango da, prozesu eraldatzaile baten lehen urratsak egin ondoren, zehaztapen handiagoa eta on guztia berrestea exijitzen digute herritarrek. Eta ezin diegu kale egin.

Marraztu dugun bideak jarraipena izan dezan, ondo egindakoa izango dugu hurrengo legegaldirako abiapuntu. Eta eskas edo eznahiko, baita gaizki edo egin gabe utzi duguna zuzentzeko konpromiso sendoak harilkatzen ari da EH Bilduren eskaintza politikoa. Gipuzkoa berria zerumugan, berritze lanari segida eta sakontasuna eman behar diogu. Xede horrekin herri programak, hautagaiak, komunikazio plangintza argiak eta herritar eta eragileekin etengabeko harremana izaten ari dira gure tresnak. Zuen ekarpenak ahalik eta fidelen jasoz, gure programa-oinarrian tokia egin diegu zuen proposamen askori. Honako programa honek milaka pertsonaren arnas eta ideiak jaso ditu.

EH Bildu Gipuzkoako gehiengo politiko eta sozialak abiatutako aldaketaren berme nagusia da. Jarraitzeko eta sakontzeko lana definitzen dituzten proposamenak ondoko orrialdeetan aurkituko dituzu, zuen ekarpenen fruitu, zuen nahiari irekia. Udal eta foru gobernuetara eramanez gero, GIPUZKOARROK GARAILE.

GIPUZKOARROK

garaile!

con  ehbildu ganamos todas

 ehbildu

AURKIBIDEA

1.- NEOLIBERALISMOARI ALTERNATIBAK ERAIKIZ	7
1.1.- Kriaren ondorioei aurre egitea	8
a) Gizarte politikak	8
b) Adinekoak	12
1.2.- Enplegu duina bermatzeko, eredu sozioproduktiboa errotik aldatzea	13
a) Tokiko ekonomia	14
b) Enplegua sustatzeko neurriak	15
c) Industria biziberritzeko neurriak	16
d) Energia burujabearen aldeko neurriak	17
e) Elikadura burujabetzaren aldeko neurriak	20
f) Tokiko merkataritza sustatzeko neurriak	21
g) Turismoa sustatzeko neurriak	22
1.3.- Baliabide publikoak herritarren zerbitzura	23
a) Zerga politika	23
b) Aurrekontu politika	25
c) Finantza sistema propioa eta publikoa	26
d) Kalitateko zerbitzu publikoen eskaintza	27
2.- GIPUZKOARRAK ETA GIPUZKOA	29
2.1. Giza eskubideak eta memoria historikoa	30
2.2.- Euskara	32
2.3.- Kultura	33

2.4.- Parte hartzea	35
2.5.- Ingurumena	36
a) Hondakinen kudeaketa	36
b) Lurralde antolaketa	37
c) Bioaniztasuna	38
d) Basogintza	38
2.6.- Mugikortasuna	40
2.7.- Politika feminista	42
2.8.- Lankidetzeta	43
2.9.- Jatorri aniztasuna	44
2.10.- Laikotasuna	46
2.11.- Aniztasun sexuala	47
2.12.- Gazteria	48
2.13.- Kirola	49

1

NEOLIBERALISMOARI
ALTERNATIBAK
ERAIKIZ



Espekulazio eta diru irabazi neurrigabearen diktaduran, kontsumo eta produkzio amaigabearen, eskubide sozialen zapalkuntzan eta ingurumenaren ustiapen basatian oinarritutako **ereduak porrot egin du. Ondorio larriak** dira oso arlo eta atal ezberdinetan. Horren erakusle gordinak dira langabeziaren eta pobreziaren datuak eta hauen ondorioz, desberdintasun ekonomikoaren areagotzea: **aberatsak gero eta aberatsago eta pobreak gero eta pobreago**. Izan ere, neoliberalismoak izugarritzko desorekak sortzen ditu: ekonomikoak, sozialak, generoarenak, politikoak... Desberdintasuna da gure gizartearen arazo nagusia. Eta garapen ekonomiko amaigabea bilatzen duten horiek ez dute kontutan hartzen ari **baliabide naturalen agorpena** edota garapen eredu honek eragiten duen aztarna ekologikoa eta etorkizunari begira ere izan ditzakeen ondorioak.

Egoera honi aurre egiteko, EH Bilduren lehentasuna lau urte hauetan **krisiaren ondorioei aurre egitea** izan da. Nahiz eta larrialdi ekonomiko egoera batean gobernatu behar izan, Gipuzkoa murrizketarik gabeko lurraldea da gaur egun. Estatu mailako estaldura sozial handiena dute gipuzkoarrek.

Aldi berean, krisiaren atzean dauden arrazoiei heldu diegu, **egun bizi dugun krisiak ez baitu aterabiderik bestelako eredu bat sortzeko gai ez bagara**. Hortaz, XXI. mendeko Euskal Herriaren eta Gipuzkoaren ehun sozial eta produktiboa gaurdanik eraldatu behar dugu. Erronka hori eragile guztiena bada ere, instituzioetatik ere, iparrak **enplegu duin eta iraunkorra sortzea** izan behar du.

EH Bildu, lau urte hauetan zehar, beste eredu horren norabidean lehenengo pausuak ematen ari da. Hona hemen hurrengo legealdirako bide berri hori egiten jarraitzeko proposatzen ditugun neurriak.

1.1.- KRISIAREN ONDORIOEI AURRE EGITEA

Egoera larri honen aurrean, gure helburu nagusia krisiaren ondorioei aurre egitea izango da. Eta premisa nagusi batek gidatuko du lan lerro hau: MURRIZKETA SOZIALIK EZ.

Austeritatearen izenean, herritarron eskubide sozialak lehenetsi beharrean, administrazioen zorra bankuei ordaintzen zaiela bermatzea lehenetsi da. Haatik, EH Bilduk argi du osasungintza, hezkuntza, laguntza sozialak... ez direla luxu bat, urteetako borrokaren ondorioz lortutako eskubideak baizik eta, ondorioz, zorraren ordainketaren aurretik lehenetsi behar dira. Horregatik, batzuek banku espekulatuak erreskatatzea helburu duten bitartean, EH Bilduk herritarron ongizatea eta galtzen ari garen eskubideak erreskatatzea eta zabaltzea dira gure lehentasunak. Hala, hauxe da Foru Gobernutik garatu dugun gizarte politika:

a) Gizarte politikak

Gizarte zerbitzuak Ongizate Estatuaren oinarrietako bat dira eta eskubide unibertsal eta subjektibo gisa eratu behar dira. Hala eta guztiz ere, gizarte zerbitzu sistema ahul baten aurrean gaude, eskubide hauek bermatzeko gai ez den sistemaren aurrean: diru homidura eskasa, pribatizazio maila altua eta lurralde desoreka izan ditu beti ezaugarri sistema honek.

Errealitate honen aurrean, berdintasun, gizarte justizia eta aberastasunaren birbanaketa printzipioetara egokituko den eredu bat sortu behar dugu. Eskubide hauen gauzatzea bermatzeko, derrigor lurralde guztietan komuna izango den Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema behar dugu, Ongizate Estatuaren ardatz gisa.

Gizarte politikek eragin berezia dute zainketen alderdi batengan, konkretuki, alderdi espezializatu eta intentsiboenetan. Testuinguru honetan, ezin da ukatu familia erdigunean dagoela zainketen sisteman eta, familien baitan, emakumeak dira batez ere lan hauek beren gain hartzen dituztenak. Errealitate hori ez da emakumeek askatasunez hala erabaki dutelako. Zainketaren etika erreakzionarioaren inposizioan du oinarria eta honi gehitzen zaio politika publikoek sistema familiarista osatzeko duten eragina. Egungo krisi egoeran, gainera, etxeak dira, bereziki emakumeak, ongizate kolektiborako ezinbesteko diren alorretan izandako gastu publikoan egindako murrizketa bortitzen kostea beren gain hartzen dutenak.

Egoera horren aurrean zainketa duinak eta kalitatezkoak eskatzen ditugu. Horretarako, ezinbestekoa da gizarte zerbitzuetako soldata duinen pertzepzioaren beharra azpimarratzea, langileen lan baldintzak onartzea eta ahaztuta utzi izan den gizarte sektore bat ikustaraztea.

Duintasunaz ari garenean eman eta jasotzen diren zainketak kantitate eta kalitate nahikoa izateaz ari gara. Baina batzuek zainketa duinak izateak ezin du izan beste batzuek zainketa prekarioak izatearen kontura; bokazio unibertsala izan behar dute. Alegia, zainketek egokiak eta libreki aukeratutakoak izan behar dute. Norberak askatasuna izan behar du aukeratzeko nola zaindu nahi duen bere burua, nola nahi duen besteek bere burua zaintzea, edo nola, zenbat eta nor zaindu nahi duen.

Askatasun erreala ezin da eman hau gauzatuko dela bermatuko duten baldintza materialik gabe. Halako baliabiderik ez dutenak hirugarren pertsonen borondatearen esku daude biziraun ahal izateko. Horregatik, uste dugu mundu guztiak izan behar duela existitzeko eskubidea bermatuko duen oinari material edo errenta minimoa.

Diru sarrera faltak herritarren parte bat pobrezian nekez bizitzea dakar, baina pobrezia eta gizarte bazterketa desberdintzea komeni da. Azken honek ez du dimentsio ekonomikoa bakarrik. Pertsona baten bazterketa definitzen dutenak enplegua, etxebizitza, osasuna, hezkuntza, gizarte harremanak eta parte-hartze politiko eta soziala dira, besteak beste. Horregatik, gizarte bazterketaren kontrako jarduerak gizarte zerbitzu, osasun, etxebizitza, hezkuntza edo enplegu politika integralen baitan artikulatu behar dira, bai eta hirigintza, garraio edo kulturatik ere.

2015-2019 legegintzaldirako neurriak:

1. Gizarte zerbitzuetarako sarbidea unibertsalizatzea eta dauden estaldurak handitzea itxaron zerrendak murrizteko. Horretarako Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuetako Mapan (2015-2017) hiru urtetan 634 plaza berri irekitzea proposatzen dugu. Bereziki kontutan izanik:

- Biztanleko estaldura txikiena duten lurraldeko guneak.
- Plazen okupazioan errotazio baxuena duten zerbitzuak.
- Deszentralizazio, komunitate arreta eta gertutasun irizpideak.

2. Gizarte Zerbitzuetan pixkanaka erabiltzailearen ekarpen ekonomikoa murriztea:

- Ordaintzetik libre dauden minimoak handitzearen bidez eta osasun eta asistentzia zerbitzuen doakotasunaren bidez aurrera egitea.
- Lehenestea ezkutuko ekonomian kompetentzia argia duten zerbitzuak.
- Desgaitasuna duten pertsonen erabilera pertsonalerako diru sarrera minimoak bermatu behar zaizkie egoitzetan.

3. Gipuzkoako udalak laguntzea herrietako gizarte zerbitzuen garapenean.



4. Gizarte Zerbitzuen kalitatea hobetu administrazio publikoaren presentzia handituz:

- Kontrol ekonomikoa eta zerbitzuen ikuskaritza eta ebaluazioa handitzea.
- Udal egoitzen kudeaketa zuzena Aldundiaren gain hartzea Kabia erakundearen bidez.
- Gizarte Zerbitzuetako Legearen 60.2 artikuluko zerbitzuen pixkanakako publikazioa.

5. Zerbitzuetako langileen lan baldintzak hobetu, zaintzen kalitatea ere hobetzeko:

- Egoitza eta eguneko zentroek bete behar dituzten baldintzak eguneratu, besteak beste ratioak handituz.
- Gizarte zerbitzuetako lan baldintza eta soldadak hobetu.
- Sektorekako lan hitzarmenak sustatu halakorik ez duten alorretan.

6. Emakumeei ingurukoak zaindu edo ez, eta nola, erabakitzeko aukera eman.

- Zerbitzuen erabilera bultzatu prestazio ekonomikoen aldean.
- Zainketak kontratatzekeo laguntza bultzatu, senideei ematen zaienaren aldean.
- Prestazio ekonomiko eta zerbitzu desberdinen arteko bateragarritasuna bultzatu.
- Zaintzaileen atsedena laguntzeko, egoitzetan aldi baterako egonaldien zerbitzua handitu.

7. Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua indartu funtzio berriak emanez, intentsitatea handituz eta ordainketa partekatuaren mailak murriztuz.

8. Haur eta nerabeak babesteko mekanismoak hobetu:

- Babesik gabeko egoeran dauden familia interbentzio programak bultzatu.
- Familia harrera bultzatu.
- Egungo egoitza harrera eredu berraztertu: programak, hezkuntza estrategiak, profesionalen profilak, ratioak...
- Bazterketa egoerak aurreikusi emantzipazio baliabideak indartuz.

9. Pobrezia mailak murriztea:

- Diru Sarrera Bermatzeko Laguntza mantendu Eusko Jaurlaritzaren murrizketak estaltzeko.
- Errenta minimoen programei unibertsaltasun handiagoa ematea.
- Haurren pobreziari aurre egiteko neurriak hartu, seme-alabak dituzten familiei bideratuak.
- Pobrezia energetikoari aurre egiteko eraginkor eta efizienteak diren estrategia integralak diseinatu. Azken urteotan, etxeetan energia beharrak baldintza minimo batzuetan asetzeko baliabide ekonomikorik ez duten pertsonen kopurua asko gehitu da (batez ere berokuntza arazoak daude). Energia urritasun hau “pobrezia energetiko” bezala ezagutzen da eta Gipuzkoako etheen %9 egoera horretan aurkitzen da. Honen aurrean, lehenik eta behin, informazioa hedatu behar da, eta horretarako energiaren inguruko informazio kanpaina pedagogikoak sustatuko dira eta kontzientziazio lana egingo da. Etxebizitza guztietan eraginkortasun energetikoa sustatuko duten neurri unibertsalak proposatuko ditugu, adibidez isolamendua ezartzeko gastuak ordainduz. Batez ere, diru sarrera urriak dituzten pertsonen behar eta ezaugarri zehatzak kontuan hartuz.
- Energiaren faktura murrizteko, faktura jaisten lagunduko luketen neurriak hartuko ditugu, adibidez isolamendua ezartzeko gastuak ordainduz. Beti ere, energia gastua, izan energetikoa zein ekonomikoa jaisteko neurriak hartzeko azterketa pertsonalizatuak egingo dira.

10. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen laguntza eta ahalduntzea:

- Harreta hiru lerrotan egituratzea: aholkularitza juridikoa, arreta psikologikoa eta interbentzio psikosoziala, egoitza zentro eta pisuez gain.
- Egungo sarea langile gehiago eta koordinazio hobearen bidez indartzea.
- Indarkeria matxista jasan duten emakumeei duintasun eta autonomia itzultzera bideratutako planteamendua.

11. Gizarte politiken diseinu, garapen eta ebaluazioan udalen, entitateen, gizarte eragileen, erabiltzaileen eta langileen partaidetza sustatzea.

12. Desgaitasuna kudeaketaren beste alorretan zeharkako bihurtu: aisia, kirola, mugikortasuna,... Bizitza independenterako programa bultzatu, desgaitasuna duten pertsonen enplegua dibertsifikatu eta kolektibo honen autoenplegua sustatu.



b) Adinekoak

Gaurko pertsona helduen errealitate eta eskariak ez dute zerikusirik orain dela urte batzuetakoekin. Egungo adinekoen gehiengo osasunez ondo dago eta bere kabuz moldatzen da autonomia maila altuekin. Adineko askok ekarpenak egiten dituzte inguru hurbilean (seme-alabei ostatu edota laguntza ekonomikoa ematen, ilobak edo beste ahaideak zaintzen...), eta gizartean (boluntariotzaren bidez, elkarteetan eta gizarte mugimenduetan lan eginez...). Hori horrela, gizartearekiko beste harreman mota bat aldarrikatzen dute helduek, eta eskari hori erabat zilegi da. Alde batetik, eskatzen dute beren aniztasuna aintzakotzat hartzea eta ez daitezela tratatu talde homogeen gisa, denak zaku berean sarturik.

Hortaz, adinekoen parte hartzea, integrazioa, pertsona bakoitzaren berezitasunak eta duintasuna errespetatzera eta zerbitzu publikoen erabilera eta kalitatea hobetzera bideratutako neurriak proposatzen ditugu:

2015-2019 legealdirako neurriak

1. Zahartze aktiboa bultzatzea, prestakuntzaren bidez, helduen ekarpenak ezagutzera emanez eta aitzindariak izan daitezkeen adineko pertsonen bidez.

2. Adineko emakumeen ikusgarritasuna zabaltzea eta berdintasun planak bultzatu elkarteetan.

3. Adineko pertsonen egoeraren diagnostikoak egitea herriz herri, beharrak ezagutzeko.

4. Tratu txarren kontrako kanpainak eta administrazioen arteko protokoloak egin.

5. Adinekoen partaidetza areagotzea Gipuzkoako Kontseiluan elkarte gehiagori tokia emanez eta bailaretako kontseiluak bultzatuz.

6. Belaunaldi ezberdinak uztartzen dituzten politikak eta ekintzak bultzatu (garraioa, kultura, jaiak, aisialdia, kirola, boluntariotza, prestakuntza...), benetako integrazioa lortzeko.


MEDEKOTASUNA DUTEN SENIDEAK ZAINTEKO LAGUNTZA EKONOMIKOA



48 milioi inguru bideratuko ditu Gipuzkoak 2015ean medekotasuna duten 26.000 pertsonak diruz laguntzera, murrizketek eraginik izan ez dezaten. Mendeko arinek ere diru laguntza kobratuko dute

AYUDA ECONÓMICA PARA CUIDAR FAMILIARES DEPENDIENTES


La Diputación de Gipuzkoa destinará 48 millones de euros a pagar las prestaciones de dependencia de 26.000 personas, para que no se vean afectadas por los recortes. Las personas dependientes leves también cobrarán.



1.2 ENPLEGU DUINA BERMATZEKO, EREDU SOZIOPRODUKTIBOA ERROTIK ERALDATZEA.

Egun bizi dugun krisiak ez du aterabiderik bestelako eredu bat sortzeko gai ez bagara. Argi dago XXI. mendeko Euskal Herriaren ehun sozial eta produktiboa gaurdanik eraldatu behar dugula. Erronka hori guztiona bada ere, instituzioetatik ere, iparrak enplegu duin eta iraunkorra sortzea izan behar du.

Larrialdi ekonomiko eta sozial batean iritsi ginen Diputaziora, baina gainditu behar ez ziren marra gorriak eta lortu beharreko helburuak ezarri zituen foru gobernuak. Gure langabezia tasa Hego Euskal Herriko apalena da. **Gipuzkoan %12,1eko** tasa dugu, Nafarroak %14,9, Bizkaiak %15,7 eta Arabak %15,8 (Eustat eta INE, 2014ko itxiera). Halere, **46.000 lagun** daude langabezian Gipuzkoan, baina gogoratu behar da lanpostua dutenen artean, askok eta askok lan prekarioa dutela.



Euskal Herrian 35 urtetan gobernatzen egon diren alderdiek diote langabezia tasa altu horiek krisiaren eragina direla, eta krisia etorri den bezala pasako dela. Krisia fenomeno meteorologikoa izango balitz bezala. Baina ez, krisia ez da zerutik etorri. Krisiaren atzean arrazoi zehatzak daude eta arduradunak izen eta abizenekin. Krisian dagoena sistema bera da. Sistema honek izugarritzko desorekak sortzen ditu: ekonomikoak, sozialak, generoarenak, ingurumenari dagozkionak, politikoak..

Bestelako eredu bat eraikitzen ari gara eta horretarako EH Bilduk tokiko garapena hartu du oinarri, eraikina goitik behera baino, behetik gora egin behar baitugu. Izan ere, Gipuzkoan enpresen %90 txiki edo ertainak dira, eta esan behar da hamarkada luzeetan ahaztuak egon direla. Gogoratu dezagun, Aldundira iritsi ginenean 2011n, enpresa handiak zirela diru laguntza guztiak eramaten zituztenak. Enpresa ertain eta txikiek ez zuten, ez denborarik, ez baliabiderik, Diputazioak nazioarteratzeko eta berrikuntzarako ematen zituen diru laguntzetara aurkezteko. Haatik, legegintzaldi honetan laguntzak jasotzen dituzten enpresa eta eragileen kopurua igo egin dira: lehen baino %51 eskaera gehiago jasotzen dugu.

Tokiko garapenaren filosofiarekin eraldatuko dugu errotik gure ehun produktiboa eta horretarako, zuzenean industriak egun dituen erronkei heldu behar diegu, ez baitira gutxi. Azken urteotan industriako enpresak itxi eta lanpostu galera itzela bizi izan baitugu.

Eta energiaren gaia ere estrategikoa izango dugu datozen urteetan, industriari lotuta, noski, baina baita ikerketaren eta enpleguaren alorrean ere, energia berriztagarrien bidea urratzen jarraituko baitugu.



a) Tokiko ekonomia sustatzeko neurriak

1. Enpresak salbatzeko eta laguntzeko zerbitzu publikoa: Krisiaren eraginagatik edo sistema beraren ondorioengatik arazoak dituzten enpresentzat Diputazioak zerbitzu publikoa eskainiko du, eskualdetako garapen agentziekin koordinatua. Enpresa txiki, ertain eta kooperatibentzat aholkularitza zerbitzu publikoa da:

Ixteko arriskuan dauden enpresak salbatzeko zerbitzua: Eskualdeetan edo sektorean duten eraginagatik (lanpostu kopuru garrantzitsua, bertako fakturazioa, eskualde edo sektoreko motorra...) arriskuan egon daitezkeen enpresekiko txoke-planak martxan jartzea legetasunezkoa da, erortzen edo "gaizki" saltzen utzi aurretik. Bergarako Candyrekin egin bezala, sektore berri eta errentagarriagoetara jotzeko aukerak aztertuko dituen bulego iraunkorra martxan jarriko dugu. Edozein kasutan, gure esku dugun guztia egingo dugu deslokalizazioak saihesteko eta diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten enpresek lurraldean mantentzeko konpromisoa bermatu beharko dute eta hori egin ezean, jasotako diru-laguntzak itzuli beharko lituzkete.

Enpresa txiki eta ertainentzat Aholkularitza Zerbitzu Publikoa: Gipuzkoan enpresen %90 txiki edo ertainak dira, eta esan behar da hamarkada luzeetan Erakundeen aldetik ahaztuak egon direla. Horren ondorioz, gero eta tarte handiagoa dago enpresa txiki eta handien artean, eta batzuek itxi behar izan dute. Honen aurrean erakunde publikoek enpresa txikien aldeko neurri berriak hartu behar dituzte eta gaur egun eskualdetako garapen agentziak eta bestelako eragileak, bakoitzak bere aldetik, ematen dituen zerbitzuei logika eman behar diete. Diputazioak martxan jarriko duen zerbitzu honek, besteak beste, nazioarteratzeko, berrikuntzarako, ingurumena zaintzeko eta ingeniarietza zerbitzuak eskainiko ditu. Zerbitzua doakoa izango da. Gipuzkoako ehun produktiboari begirako "Adimen Ekonomiko"-rako zerbitzu publiko bati buruz ari gara.

2. Eskualdeko Garapen Agentzien protagonismoa areagotzea: Goitik behera baino, eskualdeetan oinarritutako eta bertako baldintzetan oinarrituriko garapen ekonomikoa bultzatzea da biderik onena ekonomia sustatzeko. Hau da, Eskualde eta Gipuzkoako garapenak, lurralde antolaketa du oinarri; tokian jaio, lan eta bizi. EH Bildu gobernatzera iritsi arte, ordea, agentzia bakoitza bere aldetik zebilen, askotan alboan dauden eskualdeekin inongo harremanik izan gabe, askotan elkarren arteko lehiakide ziren, eta Diputazioak ez zuen berari dagokion lidergoa hartzen. Lau urte hauetan, Diputazioa eta Garapen Agentzien arteko elkarlana sustatu dugu eta denak norabide berdinean arraunean jarri ditugu. Hurrengo legealdian bide beretik jarraitu nahi dugu. Eta Garapen Agentziak eta mankomunitateek dagokien paper protagonista areagotzen jarraituko dute:

Gipuzkoako sektore estrategiko eta Gipuzkoako enpresek dituzten gabeziak gainditzeko politikak martxan jarriko ditugu; eskualdez eskualde, mahai eta programa eraginkorren bitartez.

Instituzio eta jakintzaren sare publiko zein pribatuaren aitortza, antolakuntza eta koordinazioan sakonduko dugu: Garapen Agentzia, Zentro teknologiko, unibertsitate, Enpresa eta Berrikuntza Guneak, Lanbide Heziketa Zentroak...

Herri, eskualde eta Gipuzkoako eragile sozio-ekonomikoen mobilizazio, parte-hartze eta elkar erakitze prozesuan sakonduko dugu; prozesu inklusiboa izango da.

Jarduera ekonomiko berriak martxan jartzeko prozedura administratiboak erraztu eta malgutuko ditugu.

3. Ekonomia soziala. Pertsona eta kolektibo ezberdinen beharrei erantzungo dien ekonomia sozialean sakonduko dugu; ekonomia parametro humanoetan kokatuz. Enpresa txiki zein kooperatibismoa ditugu ardatz, ekonomia sozial eraldatzailea sustatzeko eta tokiko garapen soziala indartuko duen garapen eredia sortzeko. Eredua hori helburu duten arauak eta egitasmoak bultzatuko ditugu.

4. **Enpresen demokratizazioa.** Enpresei ematen zaizkien laguntza guztietan klausula eta irizpide sozialak ezarriko dira. Bertan ezarriko dira, besteak beste, enplegua eta lan baldintzak mantentzeko, berdintasuna eta lanaren banaketarako, langileen parte-hartzerako, azken lan erreforma ez aplikatzeko eta negoziazio kolektiboa sustatzeko konpromisoak, eta gehieneko soldataren eta gutxieneko soldataren arteko aldea finkatzeko.

b) Enplegua sustatzeko neurriak

1. **Adineko langabetuak berriro laneratzeko plana:** 50 urtetik gorako langabetuek arazo larriak dituzte lan merkatua bueltatzeko. Merkatu pribatuek bazterten dituzten kolektiboak ezin ditugu alde batera utzi, erakunde publikoen ardura baita gipuzkoar guztion ongizatea bermatzea justizia sozialean eta elkartasunean oinarritutako gizartean. Babes publikoa behar dute. Aldi luzeko langabetuentzako babestutako lan merkatua sortu nahi dugu.

2. **Langileen lan baldintzak blindatu eta hobetu:** Azken urteotan langile pobreen fenomenoak, working poor deitutakoa, handitu egin da. Gipuzkoan 19.322 pertsonak (langileen %7) lanpostu bat izan arren, ez dute pobrezia muga gainditzen. Aldundiak, langile publikoen soldatak hobetzeaz gain, bere kargu dauden azpikontratetan lan egiten duten 6.000 langileen lan baldintzak babestu behar ditu, legegintzaldi honetan adinekoen egoitzetan lan egiten duten emakumeen gatazkan egin duen bezala, soldatak hobetuz eta Espainiako lan erreforma bortitzari aurre eginez. Zentzu honetan pausoak eman ditugu, klausula sozialen bitartez hitzarmenak blindatuz: obretako langileak, zaintzaileak, garbitzaileak,... Bide honetan sakontzen jarraituko dugu.

3. **Ixteko arriskuan dauden enpresak salbatzeko zerbitzua:** Eskualdeetan edo sektorean duten eraginagatik (lanpostu kopuru garrantzitsua, bertako fakturazioa, eskualde edo sektoreko motorra...) arriskuan egon daitezkeen enpresekiko txoke-planak martxan jartzea lehentasunezkoa da, erortzen edo "gaizki" saltzen utzi aurretik. Bergarako Candyrekin egin bezala, sektore berri eta errentagarriagoetara jotzeko aukerak aztertuko dituen bulego iraunkorra martxan jarriko dugu. Edozein kasutan, gure esku dugun guztia egingo dugu deslokalizazioak saihesteko eta diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten enpresek lurraldean mantentzeko konpromisoa bermatu beharko dute eta hori egin ezean, jasotako diru-laguntzak itzuli beharko lituzkete.

4. Enplegu zuria sortzeko plana (bi eremutan):

- **Gizarte zerbitzuen sarean 1500 lanpostu sortzea:** Gizarte zerbitzuetara bideratzen da Aldundiaren aurrekontu erdia. 14.000 pertsona baino gehiagok egiten dute lan udal eta foru gizarte zerbitzuen sare publiko eta kontzertatuetan Gipuzkoan, eta gure lurraldearen ongizatea hobetzen jarraitzen dugun bitartean, aukera handiak daude gizarte zerbitzuetara lotutako enpleguak sortzeko. Azpiegiturretan baino pertsonetan inbertitzeko garaia da, eta arlo honetan horrek enplegu sorkuntzan izan dezake isla. Gizarte Politikako Departamentuak Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuetako Mapa 2015-2017 aurkeztu du hurrengo hiru urteetarako: 634 plaza berri eta 741 lanpostu sortzeko plana. 2017an, baina, gizarte beharrek gora egiten jarraituko dute. Gehikuntza horren arrazoien artean, biztanleen zahartze orokorra; desgaituen bizi itxaropena luzatzea; buruko gaixotasunen eta gizarte bazterketako eta babesgabezia indizeen eragin handiagoa... Hortaz, 2017tik aurrera indarrak bikoiztuko ditugu, eta 1.500 lanpostu berri sortuko ditugu Enplegu Zuria Sortzeko Planaren bitartez.

- **Etxeetan zaintzaileak kontratatze laguntzak:** Legegintzaldi honetan, Aldundiak zaintza profesionalak sustatu ditu Laguntza Pertsonaleko Prestazio Ekonomikoaren bitartez (830 eta 300 euro bitarteko laguntza hilero zaintzaile bat kontratatzeke). Foru Aldundiaren politikari esker, Gipuzkoak Espainiako gizarte zerbitzuen sistema aurreratuen du, xede duelako gastua eta gizarte babesa igotzea eta, bereziki, krisi garaian pertsona ahulenak babestea. Honek, gainera, ekonomia piztu eta lana sortzen du. Guztira, 2.400 kontratu baino gehiago egin dira Laguntza Pertsonaleko Prestazio Ekonomikoaren bitartez azken hiru urteetan. Arlo honetan sakonduko dugu, bereziki, emakumezko langileen kontratazio erregularizatua eta zaintza profesionalak bultzatuz.

6. Enplegu berdea sortzeko plana

- Enplegu berdea sortuko duen proiektu industrialak sustatzea. Zentzu honetan, adibidez, Zero zabor helburu duen hondakin politika sustatu eta eskualdez eskualde, bai etxe zein industria hondakinen tratamendu egokienerako beharrezkoak izango diren azpiegiturak eta horiekin sor daitekeen enpresa, kooperatiba eta ondorioz enplegu berdea bultzatzeko planak babesten jarraituko dugu.

- Hondakinen plan berrian 100 lanpostu berri sortuko dira.

7. Lan banaketa sustatzeko proiektuak eta ekimenak: Gaur egun, gure herrialdean dagoen lan merkatuak ezin du bere gain hartu langabetuen kopuru osoa. Horregatik, enplegu berriak sortzeaz gain, gure lan banaketa ereduari buruzko gogoeta sakona behar da. Baliabideen, aberastasunaren eta lanaren banaketa justuagoa behar dugu, genero irizpideetan eta belaunaldien arteko solidaritatean oinarrituta. Horregatik, lan banaketa sustatzeko proiektuak jarriko ditugu martxan, langileen ordezkariekin batera.

c) Industria biziberritzeko neurriak

Industria sektore estrategikoa da gure herriarentzat: lanpostuak sortzen dituelako, motor lana egiten duelako eta lan baldintza duinetarako beste sektore batzuek baino aukera handiagoak eskaintzen dituelako.

Industria sektore indartsu, eraberritu, anitz eta eskualde ezberdinetan kokatua izatea funtsezkoa da. Horregatik, bultzatzen ari garen industria sektorearen ezaugarriak honakoak dira: dibertsifikatua, eskualdeko errealitatearekin uztartuta, maila teknologiko handikoa, energia kontsumoa murriztuko duena, ingurumenarekiko errespetua duena, industria berdea motor duena, langileen parte-hartzea bultzatzen duena.

Hona datorren legegintzaldian martxan jarriko ditugun neurriak:

1. Industria berreskuratzeko inbertsio funtsa: Egun, enpresak itxi edo saltzen ari diren honetan, Gipuzkoako enpresa eta kooperatiba txikiek duten arazorik larrienetako finantziarioa da. Arazo honi aurre egiteko, enplegua sortzeko eta industria berreskuratzeko inbertsio funtsa sortzea premiazkoa da. Nahiz eta Industriaren sustapenaren eskumena Eusko Jaurlaritzarena izan, Inbertsio funtsa hau sortzeko, eragile instituzionalen eta eragile sozio-ekonomikoen arteko konpromisoak behar dira. Eta konpromiso horien artean, lehenengoa izan behar du Kutxabank industriaren garapenerako mesedetan jartzea. Kutxabank bertako ekonomia, kooperatiba eta enpresa txikien zerbitzura jarri behar da. Horretarako kontrol publikoa berreskuratzea ezinbestekoa izanik, Gipuzkoako Aldundiak eginiko proposamena garatzea ezinbestekoa delarik.


2. Berrikuntzaren sustapena: Krisi garai hauetan, Gipuzkoak handitzen jarraitzen du ikerketan eta garapenean egiten duen gastua, inguruko lurraldeek edo herrialde aurreratuenean baino kemen handiagoz. Berrikuntzaren arloan lehen mailan jokatzeko duten herrialdeen artean gaude—lehen mailan ari baikara jokatzeko— Herbehereek eta Esloveniak bakarrik izan dituzte halako hazkundeak. Industria berreskuratzeko gakoetariko bat da berrikuntzan inbertsio iraunkorra sustatzea.

- **Diru-laguntzak:** Europako herrien norabidean, I+G+B-ri dagozkion diru-laguntzen partidak igo eta atal honetan ezinbestekoa dugun inbertsioa bermatzea. Kontrol eta Jarraipena egiteko adierazleak ezarri eta auditoria publikoak ere aktibatu. Era berean, I+G+B-ren alorrean, egungo nahaspila gainditu edota ematen diren diru-laguntzen kontrol eta koordinazio -eta plangintza- burutzea.

- **Jarduera berriak:** Sektore berrien inplantazioa eta hedapena helburu, enpresa-kooperatiba mixtoen sorrera eskualde ezberdinetan eta bertako aukera eta baliabideekin uztartua

- **Berrikuntzaren aldeko klausulak:** Administrazioetik sustatzen diren proiektuetan eta klausula sozialen bitartez, programatutako zaharkitzeari uko egiten dioten enpresak lehenetsi.

Gastua I+Gan, BPGarekiko harremanean (%).
Gipuzkoako zenbait eskualde eta munduko zenbait lurralde.



Iturria: EUSTAT eta EUROSTAT



www.gipuzkoakodatuak.net

- **Hitzarmenak:** Unibertsitateak, hezkuntza zentroak eta eskualdeetako garapen agentzi eta mankomunitate zein parke teknologikoe n proiektuen arteko elkarlana bideratzeko hitzarmenak burutzea.

3. **Nazioarteratzea:** Gipuzkoako kooperatiba eta enpresa txikien nazioarteko merkaturatzean lagunduko duten egitasmoak bultzatzen jarraituko dugu. Lau urte hauetan, lehenengo aldiz, Gipuzkoan era koordinatu batean eta sarean ari gara lanean nazioarteko merkatuei begira. Horrela, 2014an 300 bat ekintza antolatu ditu Diputazioak nazioartekotze arloan enpresa txiki eta ertainen alde. Ordezkarri politiko eta komertzialak etorri zaizkigu mundu zabaleko herrialde askotatik eta bertatik bertara ezagutzeko aukera izan dute gure enpresek eta gure lanbide heziketak duten gaitasuna, eta hainbat lankidetzak hitzarmen itxi ditugu. Hurrengo legealdira begira, inbertsioa areagotuko dugu hainbat alorretan: enpresen arteko koordinazioa, aholkularitza orokorra, nazioarteko ferietara eramatea, hizkuntza ikastaroak eskualdeetan...

Nazioarteratze inplantazioari zein merkaturatzeari dagokiolarik, **harreman justu eta solidarioetan oinarritu** eta berauek gauzatzea izango dute beti helburu. Eta herrien eta langileen eskubideak zapaltzen ez diren herriak bultzatzea.

4. **Sektore estrategikoetan inbertsio publiko-pribatuak bultzatzea:** Etorkizunerako garrantzitsuak izan daitezkeen sektoreetan: arrisku handiko ingeniarietza sektoreak, energia berriztagarriak, hondakinen birziklapena, ekonomia berdea oro har... Edonola ere, inbertsio publikoa egiteak jarraipen estua eskatzen du, herritarren diruarekin eginiko inbertsioak direlako.



d) Energia burujabearen aldeko neurriak:

Energia kor porazio handiek lapurtu diguten ondare komuna dugu. Herritarrok ondare komun horren kontrola berreskuratu beharrean gaude, eredu burujabe, iraunkor eta herritarrera eramango gaituen energia trantsizioa hasi ahal izateko.

Euskal Herriak duen menpekotasun energetikoa ia-ia erabatekoa da, hau da, %90 baino handiagoa, eta gainera %80a baino gehiago lehengai fosiletatik eratorria da. Datuek argi diote: soilik euren aberastasuna helburu, energia ekoiztu eta banatzen duten multinazionalen menpe bizi gara, oligopolio energetikoaren menpe, hain zuzen. Horien helburu bekarra kapitala metatzea da, dirua irabaztea, ingurumenarekiko inongo begirune barik (fracking), energia zikina, kutsakorra sortuz. Oligopolio horren enpresak ahal den neurrian baztertu eta sektore publikoaren eta kooperatiben papera bultzatuko dugu.

Bide horretan, hauek dira martxan jarriko ditugun egitasmoak:

Kontsumoa murrizteko neurriak

1. **Industriaren alorreko enpresetan auditoria energetikoak sustatzea**, kontsumoa jaisteko asmoz. Gipuzkoan kontsumitzen dugun elektrizitatearen ia erdiak enpresek kontsumitzen dute. Hori dela eta, efizientzia energetikorako inbertsio planak babesteko egitasmoa zehaztea eta norabide horretan doazen I+G+B-ko egitasmoak sustatzea. Norabide horretan ere, Biomimesiaren teoriar oinarritutako industria garbiak sarituko ditugu.

2. **Garraioagatik sortzen den kontsumoa murriztu**: "0 Km" politikak bultzatzea proposatzen dugu, izan kontratazio klausulen bidez, zein plan orokorretan oinez iristeko moduko distantzietan ibiliz etab.

3. **Gipuzkoako Foru Aldundiko energiaren kudeaketa iraunkorra**: Foru Aldundiaren kudeaketa energetikoa, erakunde publikoa den heinean, garrantzi handia du ikuspuntu guztietatik: materia energetikoan dituen inpaktuak zuzentzea, haren funtzionamenduak duen gastu publikoa murriztea, eta eredugarria izateko betebeharrak eta oihartzuna. Foru Aldundiak erabilera zuzeneko 55 eraikin ditu, argiteria publikoko instalazioekin, eta politiken garapenarekin lotutako ehunka eraikin. Eraikin hauen planifikazio energetikoa eta kudeaketa energetiko arrazionala bultzatzen jarraituko dugu.

4. **Teknologia berrien erabilpena sustatu**: Gipuzkoako enpresa eta industria sarea teknologia energetiko berrien esparruan sartu behar dugu. Adibide gisa jar daiteke Foru Aldundiak Donostiako Udalarekin, GAIA eta IK4 kide teknologikoekin duen lankidetzaren I+D "i-Sare" Enerctic proiektua garatzeko (27. poligonoan dagoen Enerctic eraikinean dagoen 400 kW-ko mikrosare adimenduna). Eraikin eraginkorraren, adimendunaren eta ahalik eta laguntzarik txikiena behar duenaren ideia aplikatzen ikasi nahi da.

Energia berriztagarrien aldeko neurriak

Lehengai fosiletatik energia berriztagarrietara salto egin behar dugu. Ingurumen ikuspegitik, zein bideragarritasun ekonomiko eta sozialetik, energia berriztagarrietan oinarrituriko sistema energetikoa eraiki behar dugu, beti ere aipaturiko kontsumoaren murrizketa burutuz, bestela ez baita bideragarria izango. Iturri berriztagarriak, haizea, mareak, lur-azpiko tenperatura altuek, eguzkia...ekologikoki sostengarriak izateaz gain, muga-gabeak dira, epe ertain-luzean behintzat, eta beraz, hauek denak uztartuko dituen ekoizpen eredu beharrezan asetzeko aukera erreala bilakatuko litzateke. Aukera bakarria dugu trantsizio hau ematea, planeta suntsitu nahi ez badugu behintzat.

1. Fracking ez. Gipuzkoan, bi baimen daude eskatuta lurpetik gasa ateratzeko teknika horretarako; 2011n eskatu zituen Jaurlaritzaren menpeko SHESA enpresa publikoak, eta oraindik erantzunaren zain daude. Eskatera eremu zabal baterako egin ohi da; beraz, baimena emanaz gero, eremu horren barruan edozein tokitan has ditzakete lanak. Gipuzkoan, lurrazalaren %40 hartzen dute baimena eskatu duten bi gune horiek. Baina gure herrialdean Fracking-aren aurkako ahotsak areagotuz doaz: Hogeitik

gora dira Gipuzkoan fracking gabeko udalerrriak eta Batzar Nagusiek ere fracking gabeko lurralde izendatu zuten Gipuzkoa iazko ekainean, EAJren kontrako botoarekin—. Espainiako Gobernuak, aldiz, argi utzi du erkidegoek ezin dutela euren kasa debekurik jarri, eta Konstituzionalak baliorik gabe utzi ditu onartuta zeuden hainbat lege; Nafarroan, Kantabrian eta Errioxan, esaterako. Teknika erabiltzeak eragin ditzakeen kalteak askotarikoak dira: soinu kutsadura, landa okupazioa, lurrikarak, lur azpiko nahiz azaleko uretan eragin ditzakeenak... Izan ere, ura da fracking-aren ondorio larriena, baina horrez gain, teknikak bizi motza du, zulatzean leku konkretu bateko gasa bakarrik ateratzen da, pitzatzen den tokikoa bakarrik, eta 2-3 urtetan jada ez du merezi putzu hori ustiatzea. Ingurumenean duen eragina ez ezik, ekonomikoki duen kostua ikaragarria da.

2. Energia garbien sustapena enpresa txiki eta ertainetan: Industriak energiaren azken kontsumoaren ia erdia du eta elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, burdingintza eta galdategiko sektorean bakarrik energia elektrikoaren eskaeraren erdia da. Baliabide teknikoek gabeziak eta enpresa jardueraren egunerokoek beharrezkoa egiten dute erakunde publikoen esku sartzea. Zentzu honetan, Enpresa txiki eta ertainetan energia aurrezteak, energia eraginkortasuna eta energia berriztagarriak sustatzeko programak areagotuko ditu.

3. Garraio publikoaren aldeko neurriak: Garraioko sektoreak energiaren azken kontsumoaren %33 duenez, gure "faktura energetikoan" pisu espezifiko handia du. Erakunde publikoen ardura da autoz egiten diren bidaiak murriztea, Diputazioan EH Bilduk egin duen moduan. Baina garrantzitsuena da garraio publikoaren aldeko hautu garbia egitea eta bizikletarien hiri eta hiriarteko mugikortasuna bultzatzea.

4. Energia banatuaren sorrera: Egun elektrizitate gehiena zentralizatutako instalazio handietan sortzen da, hala nola, erregai fosila erabiltzen duten zentraletan (ikatz, gas naturala), nuklearretan eta hidroeletrikoetan. Energiaren sorrera banatuak, berriz, proposatzen du energia sortzea kontsumituko den gunetik gertu dauden instalazioetan, kontsumitzaileari zuzenean edo garraio eta banaketa sareari konektatuz. Kontsumoaren eraginkortasuna errazten duen planteamendu bat da, sortzaile/kontsumitzailearen ikuspuntutik gutxienez kontsumitu eta auto-hornidura handiena lortu nahi baita. Honela, energiaren mendekotasuna murrizten da, eta energia eredu sozializatuago bat lortzen da, pobrezia energetikoaren maila apalagoekin. Hala ere, oztopo asko daude, besteak beste: politika arazoak, arazo juridikoak, ekonomikoak, teknologikoak eta abar. Foru Aldundiak gaitasunak ditu oztopo horiek gainditzeko eta eredu energetiko berri hori lortzeko elementu berriak sustatzeko. Horrek esan nahi du energia berriztagarrietan ditugun gaitasunen aprobetxamendu iraunkorra sustatu behar dela, sorrera banatuan oinarritzen den ereduak, alegia (eguzki-fotovoltaikoa, eguzki-termikoa, beroa sortzeko basoko biomasa eta basokoa ez den biomasa, intentsitate ertainetako eta baxuetako eolikoa, lur azaleko geotermia eta bestelako aukerak).

5. Tokiko eta eskualde mailako jarduna: Udalak jakitun dira energiaren arazoa konpondu beharra dagoela, lurralde osoan banatutako zerbitzu publikoetako kostuak jaisten hasteko. Poliki-poliki, eta ahalegin handiz, jarduerak bultzatzen ari dira, udalen jardueran zentzua eta eragina duten jarduerak, hain zuzen ere. Oztopo nagusiak dira udal ekipoen finantzaketa eta baliabide teknikoak, gai garesti, konplexu eta benetako aplikazioaren zain dagoen baten aurrean. Foru Aldundiak, bere eskumenez gain, ardura subsidiarioa du udal eskumeneko gaitetan. Ereku horretan ibilbide luzea dago egina laguntza teknikoko eta finantzario tresnekin, zeintzuk dibertsifikatzen ari baitira, eta energia alorreko alderdietara orientatzen ere ari baitira.

6. Ingurumena errespetatu eta enplegu berdea sortuko duten industria proiektuak sustatzea. Zentzu honetan, adibidez, Zero zabor helburu duen hondakin politika sustatu eta eskualdez eskualde, bai etxe zein industria hondakinen tratamendu egokienerako beharrezkoak izango diren azpiegiturak eta horiekin sor daitekeen enpresa, kooperatiba eta ondorioz enplegu berdea bultzatzeko planak babesten jarraituko dugu.



e) Elikadura burujabetzaren aldeko neurriak

Elikadura oinarritzko beharra izanda, lehenengo sektoreari buruzko politikak erabateko lehenetasuna dute. EH Bilduren helburua da tokian tokiko ezaugarriak eta baliabideak erabiltzen dituen sistema iraunkor, justu eta osasuntsua eraikitzea. Elikadura Burujabetzan aurrera pausuak ematen lagunduko duen sistema.

Egungo elikadura sistemak enpresa handiei egiten die mesede, nekazari, abeltzain, arrantzale eta kontsumitzaileen kaltetan. Ekoizpen intentsibo eta espezializatua sistema horren ezaugarria da. EH Bilduren ereduak berriz, ekoizpen ekologikoa sendotzea proposatzen du. Are gehiago, agroekologia sustatzearen aldeko ahalegina egingo dugu, hau da baserriarrek autonomia berreskuratu eta prozesu guztia bere gain hartzeko aukera aztertu behar da, gertuko merkatuetan, baserrietan edo kolektiboki antolatutako azpiegituretan saltzeko, herri edo herrialde mailako elikadura sistemak eraikitzea. Halaber, abeltzain eta zerealisten arteko elkarlana sustatu behar da, ahal dela planifikazioa bultzatuz, kompetentzia enpresa handiei baino ez dielako mesederik egiten. Zentzu horretan, arrantzan zero bazterkin politiken alde egiten dugu, hartzen den guztia kontsumora bideratu behar delako.

Azkenik erabat ekonomikoak diren bi neurri defendatuko ditugu: Lehenengo sektoreari ematen zaizkion baliabide guztiak banatu egin behar dira, horretan lan egin nahi duen inor baztertuta izan ez dadin. Eta lehen sektorean ere progresibitatean oinarritutako zerga sistema ezarriko du EH Bilduk.

1. **Legealdi honetan sortutako lur funtsa lurrez hornitzen jarraitu** eta lurren esleipenean irizpide zehatzak erabiliz (berriak, gazteak, emakumeak, agroekologikoa, lurren banaketa justua...), lanpostuak sortu zein beharra duten baserriarren esku jartzen jarraituko dugu. Honekin batera, nekazaritzarako egokiak diren lurak bestelako interesen aurrean nekazaritzarako babestea, inbentario bidez sailkapen eta kalifikazio zehatua eginez eta babeserako eraginkorrak diren mekanismoak martxan jarriko ditugu.

2. **Lanpostuak sortzeko planarekin jarraituko dugu:** Lehen instalazioa bultzatzen eta errazten duen laguntza, formazioa, beka eta instalatzeko proiektuak aurrera eraman ditzaten udalekiko akordioak.

3. Sektore publikoko erosketetan eta **kontratazioetan klausula sozialak** txertatzeko foru araua onartu da legealdi honetan Aldundiak sustatuta. Elikagaien erosketa publikoa Aldundiak eskumena duen egoitza desberdinetan burutzen da eta zentzu horretan sakontzen jarraitu beharra dago kalitate eta ingurumen irizpideak kontuan hartuta inguruko baserriar eta arrantzaleen produktuak erabiliz eta herriko merkatari txikiak bestelako produktuak osatuz.

4) **Baserriarrek autonomia irabazteko** helburuarekin ekoiztutakoa transformatu eta merkaturatzea errazteko, herrialde osoan zehar transformazio guneen sare bat antolatzen ari gara. Era anitzetako transformazioak burutzeko zerbitzua eskainiko du sareak, barazki, esneki, fruta, haragi eta abarrak.

5. **Baserriarren lan zein bizi baldintzak** hobetuko dituzten zerbitzu eraginkorrak eta azpiegiturek bultzatuko ditugu.

6. **Eredu intentsiboetatik iraunkorragoetara** urratsa eman nahi dutenentzako laguntzak eta aholkularitza integrala.

7. **Baserriar eta herritarren arteko zubiak** eraikitzen jarraituko dugu, eskoletan bertako sukaldaritza sustatzeko programa berria martxan jarriko dugu.

8. **Eskualde mailako guneak** sustatuko dira baserriarren parte hartzea bultzatzeko, ekarpenak proposamenak eta kezken berri zuzenean jasotzeko. Administrazioaren proposamenak ere bertara eramango dira.

9. **Hezkuntzatik hasita**, nekazaritza iraunkorraren onurak eta kalitatezko elikadurarekiko herritarren kontzientzia areagotzeko ekimenen plangintza martxan jarriko dugu.

f) Tokiko Merkataritza sustatzeko neurriak.

EH Bilduren ustez, tokiko merkataritza bultzatu eta babestu beharra dago herriei, auzoei eta herritarroi ondorio positiboak ekartzen dizkigulako. Alde batetik, auzo eta herri biziak eskaini eta harreman pertsonalak bultzatzen ditu. Bigarrenik, distantzia laburreko zirkuituak egiten direnez, ekologikoagoa da, bai pertsonen mugimenduei dagokionean, bai eta merkaturatzen diren produktuen "0 km" filosofiari dagokionean ere. Hirugarrenik, bertako produktuak saltzeko aukera handiak ematen ditu. Gainera, tokiko merkataritzak enplegua sortzen du; herrietan lan egiteko aukerak ematen ditu. Eta azkenik, bertako produktuen kontsumoak, bertan eragindako aberastasuna gehiago banatzeko aukerak eskaintzen ditu eta ingurumenarekiko errespetua areagotzen du.

Azalera handiko merkataritza gunek ireki izanak, Gipuzkoako herri eta auzoetako kaleetako komertzio txiki ugari ixtera eraman du eta beste kasu askotan ozta-ozta iraunaraztera. Ondorioz, EH Bilduk azalera handiko merkataritza gunek berrien kontrako jarrera irmoa du, bere ondorioak ere larriak direlako eta tokiko merkataritza bultzatu eta babestu nahi dugulako.

Udalek eta eskualdeko entitateek, merkatarik elkarrekin batera, herritarren artean bertako merkataritzaren aldeko hautua sustatu eta merkatarikien eskaintza kalitatezkoa, modernoa, bidezkoa eta ekologikoa izan dadin bultzatu behar dute. Hala, hauek dira bultzatuko ditugun neurriak:

1. **Merkataritza sustatzeko plan estrategikoa:** Udalekin, eskualdeko mankomunitate edo garapen agentzietan eta gobernu autonomikoen inplikazio ekonomikoaz, herrialdeko tokiko merkataritza eraberritzeko eta bultzatzeko plan estrategikoa burutzea ondoko proposamen zehatzak garatu daitezkeelarik:

- Langileen prestakuntza eta profesionalizazioa helburu duten ikastaroak eta diru-laguntzak.
- Merkatarikien transmisiorako laguntza sustatu; komertzioak ez ixteko jabeak erretiratzeko.
- Berrikuntza eta teknologia berriak aplikatu asmoz, beharrezkoak diren inbertsioetarako dirulaguntzak edota hoberi fiskalak lantzea.
- Teknologia berrien aplikazioa eta salmenta zuzenerako proiektuak bultzatzeko ikastaro eta dirulaguntzak edota hoberi fiskalak lantzea.
- Oro har, eta tokiko garapenaren logikan, tokiko merkataritzaren berrikuntza, ikerkuntza eta garapena bultzatzeko proiektuak babestea.
- Merkatarik edota ostalarikien elkarrekin bultzatzen dituzten egitasmo sozial eta kulturalak bultzatzea eta babestea.
- Eskualdeen arteko elkarlana bultzatzea, hainbat zerbitzu edo eskaintza elkarrekin eman ahal izateko.

2. **Tokiko txanponak:** Orain arte Gipuzkoako zenbait herrietan (Eskoriatza, Oñati...) izandako esperientziak tokiko merkataritza sustatzeko tresna egokia dela baieztatzen ari da. Txanpon honen potentzialtasunak ikertzen jarraituko dugu.

3. **Klausula sozialak:** Tokiko merkataritzan eta, oro har, merkataritzarako klausula sozialen eztabaida ireki eta bultzatzea. Klausula sozialen errespetuan oinarritutako "kalitate" programa berria martxan jartzea.



g) Turismoa sustatzeko neurriak

Turismoa esponentzialki hazten ari da Gipuzkoan, eta EH Bildutik turismoaren aldeko apustua egiten dugu ekonomiaren beste atal garrantzitsu gisa. Bultzatu nahi dugun turismoak, ordea, turismo eskaintzarekin alderatuz, ezberdina behar du izan eta bestelako oinarriak behar ditu. Helburua ez da gero eta turista gehiago erakartzea baizik eta gure ekonomiako sektoreak sustatzea turismoaren bitartez.

Turistei egin diezaiekegun ekarpenik onena gure kultura eta bizimoduak erakustea da. Euskal Herrira etortzen den bisitari orok emango du mundu zabalean hemengo aberastasun soziokulturalaren berri. Beraz, turismo eskaintza eta ereduak ez dute aberastasun ekonomiko soilak bultzatuko, helburua ez baita ahalik eta turista gehien ekartzea edozein prezioetan.

EH Bilduk bultzatu nahi duen turismo ereduak bereizgarria egiten duen zenbait oinarri ditu. Zentzu honetan, EH Bilduk herri izaera eta tokian tokiko kultura ezagutarazteko baliagarria izango den ereduaren alde egiten du, baita gure historia zaharraren eta eskaintza garaikidearen uztarketa bilatuko duena. Gainera, turismo proposamenetan EH Bildu Gipuzkoako natur baliabideak eta nekazaritza guneak errespetatzen saiatuko da eta masifikazioa helburu duten proiektuak alboratuko ditu. Kostako herri zehatzetan bezalaxe, barnealdeko eskaintza anitza eta orekatua sustatzeko dugu. Azken finean, ingurumenarekin, gizartearekin eta herriarekin arduratsua den turismoaren aldeko apustua egiten du EH Bilduk.

1. **Donostia 2016.** Aukera paregabea da Donostia, Gipuzkoa osoa eta Euskal Herria munduan ezagutzera emateko.

2. **Turismo eskaintza anitza sustatu.** Beste herrialde askotan gertatu den bezala, arrisku handia dago turismoa leku eta hilabete zehatz batzuetan pilatzeko. Honen aurrean, turismo eskaintza berriak, produktu bereziak eta herrialde osoan ondo antolatutako eskainiko ditugu urte osoan zehar. Zentzu honetan, orain arte ongi funtzionatu duena erabiliko dugu beste esparru guztiak ezagutarazteko. Adibidez, Donostiako eskaintza Parte Zaharretik beste auzoetara ere eramango dugu eta turismo ekitaldi arrakastatsuenak erabiliko dira atrakzio polo bezala. Horrela, turismo bulegoetan eskaintza anitzak egongo dira, adibidez, Gipuzkoan zehar ibiltzea gure GR ibilbide luzeetatik, surfa, herri kirolak, gastronomia lantegiak, eta abar...

3. **Euskal kultura sustatzeko tresna ere bada turismoa.** Bisitariak gure hizkuntza, gure gastronomia eta gure izaera ezagutzera etortzen direla ohartuta, turismo eskaintzan elementu hauek ardatz izango dira.

4. **Marka bereizgarri bat garatzea,** "Gipuzkoa, bestelako esperientzia bat" izenekoa, non nabarmendu egingo ditugun gure kultura, gure izaera eta gure identitatea.

5. **Nazioarteratzea.** Lankidetzan aritzea Europako beste herri edo eskualde batzuekin, kulturako eta ekonomiako harremanen bidez sinergiak lortzeko.

6. **Elikadura burujabetza.** Lehen sektorea indartzeko erabiliko dugu turismoa, eta bertako ekoizleak eta ostalaritza elkarlanean jartzeko politikak aurrera eramango dira.

7. **Tokiko Garapena sustatzeko turismoa:** Gipuzkoan eskualdeekin beste modu bateko lana sendotzearen alde egin du EH Bilduk, honako helburuekin: Lanpostuei eutsi eta sortzeko, eskualde bakoitzeko eragile publiko-privatuekin elkarlana sustatzeko eta turismoaren alde egingo duten enpresa gehiago sortu ahal izateko.

1.3.- BALIABIDE PUBLIKOAK HERRITARRON ZERBITZURA JARTZEA.

a) Zerga politika

Egin nahi dugun guztia egiteko, nahitaez, erreforma fiskal erradikala egin beharrea gaudu; gizarte justuago bat izateko oinarritzat delako zerga politika justu eta birbanatzailea. Norabide horretan, Gipuzkoan urrats ugari egin ditugu. Gipuzkoako Foru Ogasunera iritsi orduko, EH Bilduk zerga erreforma egiteko beharra eta norabidea mahai gainean jarri zituen. Lau urte hauetan zerga gehienetan egin dira aldaketak, baita iruzur fiskalaren aurkako borroka areagotu ere, eta emaitza da diru sar rera gehiago ditugula gizarte zerbitzuak hobetzeko eta inbertsioak egiteko.

EH Bilduren eredu fiskala sei zutabetan oinarritzen da:

- **Ekitatea:** errenta berdinek, berdin ordaindu behar dute
- **Progresibitatea:** ahalmen ekonomiko handia dutenek, ekarpen handiagoa egin behar dute.
- **Berdintasuna:** pribilegioak ezabatu. Iruzur fiskalaren aurkako borrokan tinko aritzeko oinarria. Berdintasuna genero ikuspuntutik ere landu behar da.
- **Gardentasuna.** Herritarrek jakin behar dute zertan eta nola gastatzen den dirua.
- **Nahikotasuna.** Baliabide nahikoak bildu behar dira oinarritzat zerbitzuak bermatu ahal izateko. Sektore publiko indartsuak jendartea egituratzen du.
- **Birbanaketa.** Aberastasuna birbanatzeko tresna da zerga politika.

Zergaz zerga, neurririk garrantzitsuenak

1. Sozietateen Mozkinen gaineko Zerga.

Etekinak lortzen dituzten enpresek ekarpen handiagoa egin behar diote gizarteari. Sozietateen Mozkinen gaineko Zergak bertako enpresen fondo propioak indartzea sustatu behar du, batetik, enpresen kanpoko kapitalekiko dependentzia gutxitzeko, eta bestetik, lurraldearekiko konpromisoa indartzeko.

Hori sustatzeko hiru oinarri nagusiak ikusten ditugu:

- Lehenengoa, gastu finantzarioak kentzeko aukera ahalbideratu behar da, baina ez du mugagabea izan behar, limite batzuen baitan kokatu behar baita gastu horiek kentzeko aukera.
- Bigarrena, etekinak izan dituzten enpresei inbertsiorako eta enplegurako erreserba bat osatzeko aukera ematea. Horretara bideratzen diren baliabideak onura fiskala izango dute.
- Hirugarrenik, zerga sinplifikatu behar da, gaur egungo kenkarien nahaspila mugatuz. Planteatzen dugu kenkari bakarra uztea ikerkuntza eta garapenean inbertitzen diren kopuruak kontutan hartuko duena. Kenkari horrek mugatua egon behar du, gehienezko kenkaria ez da inoiz izango kuotaren %25a baino altuagoa.

Mozkinen kopuruak, askotan, ez du zerikusirik enpresaren tamainarekin. Zentzu horretan eskala bat ezartzea proposatzen dugu: 200.000€ arteko irabaziak %24a. Hortik aurrera, %28a. Modu horretan zerga progresiboagoa egiten da.



2. Aberastasuna eta Fortuna handien gaineko zerga

Aberastasuna eta Fortuna Handien Zerga eredugarria da. Zergadun kopurua txikia da eta bilketa ahalmena ere mugatua da, baina ahalmen gehien duten zergadunen aldetik dator eta zentzu horretan zerga sistemaren progresibitatea indartzen du.

Ondarearen zergatzeak gutxienez bi elementu jaso behar ditu: batetik, ondarearen gaineko zergak, edozein dela ematen zaion izena, ezkutu fiskala ez duela eduki behar; bestetik, enpresetako partaidetzak kontutan hartu behar direla ondareak kalkulatzeko momentuan. Azken horiek inbertsio produktiboak izanik, hobaria



3. Iruzur fiskalaren aurkako borroka

Zerga bilketa saihesteko erabiltzen ziren hainbat bide eta jokabide moztu dira. Enpresak Sustatzeko Elkarteen (SPE delakoak) erregimenaren derogazioa bultzatu dugu eta moduluen sistema ezabatu, besteak beste. Norabide egokia da eta urrats gehiago eman behar dira.

Arauz gain, zerga iruzurraren borrokan informazioa biltzeak berebiziko garrantzia du. Horregatik, EH Bilduk gaur egun Ogasunen arteko datuen elkar trukaketaren formalizazioa bultzatuko du.

Informazioaren lanketa hobetze aldera, arrisku bereziko zergadunen gaineko alarma sistema ezartzea lehentasuna izango da EH Bildurentzat (ROTTER delakoaren antzekoa). Alarma sistema horrek jarraipen estua eta balizko jokabide iruzurgileak garaiz antzematea ahalbideratzen du.

Giza baliabideak eta baliabide teknologikoak modu orekatu batean gehituz joan behar dira iruzurraren aurkako eraginkortasuna handitzeko.

4. Umeen pobrezia aurre egiteko errenta

Gaur egungo sistemak umeen pobrezia arazoa eragin du. Beharrezkoa iruditzen zaigu bide berriak esploratzea familia eta batez ere seme-alaben babesa indartzeko eta benetako jaiotzaren aldeko politika sustatzeko. Helburu horrekin, diru-laguntza, kenkari eta konpentsazioak orekatzen dituzten sistemak ezarriko dira.

5. Etxebizitza politika bermatzeko fiskalitatea

Etxebizitza eskubidea bermatzeko bidean lehentasuna alokairuari ematen diogu. Horrela bada, PFEZren kenkarietan alokairuaren gaineko kenkariak izan behar du lehentasuna. Herritar askorentzat etxebizitza eskubidea lortzea ezinezkoa den bitartean beste etxebizitza batzuk hutsik mantentzea bidezkoa ez denez, hutsik dauden etxebizitzaren gaineko errenergua zabaltzea bultzatuko dugu. Euskal Herri osoan aukera izan behar dute udalek, egokia ikusten badute, hutsik egon edo ohikoak ez diren etxebizitzaren gainean errenergua ezartzeko.

6. Udalentzat ere ikuskaritza zerbitzu publikoa

Udal zergetan, EJZ bereziki, aldiro ikuskaritza lana burutzea garrantzitsua da. Hori ez bada egiten, enpresek aitortutako balioak zaharkituak geratzen dira, enpresen artean ezberdintasunak sortuz eta udalentzat zerga bilketa

galerak eraginez. Arazoaz jabeturik, Gipuzkoako udalak eta Foru Aldundiak lankidetzan Ikuskaritza lantalde berria sortuko dugu, udal zergak ikuskatzeko aukera publiko eraginkorra eskainiz.

7. Fiskalitate berdea.

Fiskalitate berdeak ingurugiroko kostuak barneratzea, zenbait jokamolde sustatzea eta beste batzuk zigortzea bilatzen du. Zentzu honetan urrats batzuk emateko garaia da. Adibidez, goi-tentsioko linearen gaineko tasa ezartzeko aukera jorratuko dugu.

b) Aurrekontu politika

Aurrekontu politikaren helburua nagusia baliabideak bildu eta herritarren artean birbanatzea da.

Baliabideak bildu eta gastatzen diren moduen arabera, aberastasuna birbanatzen da: gehien duenak ekarpen handiagoa egiten du. Horrela, sarrera politika eta gastu politika ezberdintasun sozialak gutxitzeko tresna garrantzitsuak dira.

Hala, gure aurrekontu politikak bi ezaugarri nagusi izango ditu:

- **Gardentasuna.** Herritarrek jakin behar dute zertan eta nola gastatzen den dirua. Hori ezagutzera ematen den neurrian, iruzurra egiteko aitzakiak desagertzen dira.

- **Nahikotasuna.** Nahikoa baliabide bildu behar da gizartearen oinarritzko zerbitzuak bermatu ahal izateko. Sektore publiko indartsuak jendartea egituratzen du. Horrelako sektore publikoa osatzeko zerga erreforma ezinbestekoa da, baliabide gehiago lortzeko eta era berean zerbitzu sozial zabalagoak antolatzeko

Aurrekontuen lanketan, orain arte oso ohikoak izan ez diren beste bi elementu integratuko ditugu prozesuan:

Aurrekontuaren genero ikuspegiaren azterketa: ezinbesteko tresna aurrekontu politikek nori eta nola eragiten dioten aztertzeko, eta berdintasunaren bidean urratsak emateko beharrezko neurriak hartzeko. Azterketa honetan sakonduko dugu, gastuan eta, nola ez, sarreretan eraginez.

Partaidetzako aurrekontuak: herritarrei hitza emanez, eskualde guztietan parte hartze prozesuak egingo dira, aurrekontu osoaren zati bat zertan gastatu zuzenean erabaki dezaten, biztanleak herritar bihurtuz.

Prozesu hauekin beste helburu bat ere badugu, herritarren boteretzea eta horretarako ezinbestekoa den heziketa.

Bestalde, zerga iruzurrari aurre egiteko ezinbestekoa da herritarrei ahalik eta informazio zabal eta errazena helaraztea sektore publikoaren funtzionamenduaren inguruan. Herritarrak modu boluntario batean bere betebeharrak fiskalak betetzeko ezagutu behar du nondik jasotzen den dirua eta zertara bideratzen den. Hori lortzeko gardentasuna ezinbestekoa da; hezkuntzan oinarritzko edukiak lantzeak garrantzia handia du. Eta orokorrean, zerga sistemari buruz eztabaida bultzatzea, bai maila politikoa, baina baita maila akademikoan eta sozialean ere.



c) Finantza sistema propioa eta publikoa

Edozein herrik, baita gureak ere, finantza sistema propioa behar du, bertako aberastasuna bertan geratu eta inbertitu dadin. Bide horretan, funtzio soziala beteko duen banku publikoa behar dugu, herritarron, ehun produktiboaren eta erakunde publikoen beharrei begira funtzionatuko duen banku publikoa, herritarrona eta herritarrontzat.

Euskal finantza sistemak, lurraldeko ehun produktiboa eta norbanakoek ekonomia bultzatu eta sustatzeko erreminta izan behar duen neurrian, lurraldeko Erakunde zein egitura sozialak egin ahalko duen kontrol publikoa bermatu behar da.

Horretarako honako neurriak proposatzen ditugu:

1. Lurraldeko Goi Erakundeak Gipuzkoako Kutzaren sortzaile izanda, Kutzak Kutxabanken jabetzaz dituen akzioen %32, lurraldeko erakundeek (Udalen eta Foru Aldundiaren) esku uzteko eskualdatze-prozesua egitea.

2. Gipuzkoako enpresari, autonomo, herritar eta erakundeek depositu edo gordailuek eragindako aborokinak, lurraldeari itzultzeko sistema gizartegintza izaki, Kutzarekin batera aurrekontu eta lan ardatzak adostea.

3. Kutzak Kutxabanken bidez, Gipuzkoako ekonomia sustatzeko inbertsio lerroak ireki ditzan, solaskidetzatza ildo irekitzea.

4. Onkologikoa Osakidetzan erabat integratzeko prozesua bultzatzea.

5. Kutxa eta Kutxabanken erabaki, inbertsio politika, partizipatu eta gainerako ildoen kudeaketa gardena izateko, behaketa publikoak sustatzea.

6. Gipuzkoarren artean, lurraldeak eta Euskal Herriak behar duen finantza sistema publiko eta sozialaren ereduari buruzko hausnarketa eta eraikuntza prozesua zabaltzea..

BADUGU BEHARRA, BADUGU AUKERA

KUTXAREN KONTROL PUBLIKO ETA SOZIALA

Badugu beharra

 Kutzak herritarren beharrei erantzuteko

 Udalei finantza bidea emateko


 Jardun ekonomikoari laguntzeko


 Etxe kaleratzerik ez egiteko eta IRPH geldiarazteko

 Gizarte ekintza sustatzeko

Badugu aukera

Kutzak Kutxabanken dituen akzioak Gipuzkoako udalen eta Aldundiaren esku doan utzita 

Akziodun horietako inork ez du Kutxabanken akzioen %5 baino gehiago izango, legeak ezarritako beharrak betetzeko 

Kutxa fundazio arrunta izango da, gizarte ekintza kudeatzeko 

d) Kalitatezko zerbitzu publikoen eskaintza

Madrileko zentralizazio eta pribatizazio prozesuak sektore publikoa desmantelatu nahi duen honetan, zerbitzu publikoen garrantzia azpimarratu eta eskubide sozialak bermatzeaz gain, ekonomiarako eta enplegua sortzeko duen balorea ere azpimarratu nahi dugu.

Botere ekonomiko eta finantzarioen indarra inoiz baino nabarmenagoa denean, erakunde publikoen aldeko apustua egiten du EH Bilduk. Dudarik ez dugu prestigioa eta balioa eman behar diogula sektore publikoari. EH Bilduren helburua da Aldundiak kalitatezko zerbitzu publikoa eskaintzea bai herritarrei bai Gipuzkoako udalei.

Helburu horri jarraiki, **legealdi honetan Foru Arau ugari ezarri ditugu**, esaterako:

1. Sektore publikoko obra kontratuetan klausula sozialak txertatzeko Foru Araua
2. Erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak foru sektore publikoko kontratazioan txertatzeko Foru Araua
3. Gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzko Foru Araua
4. Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzko Foru Araua
5. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Foru Araua.

Diputazioko langileen lan baldintzei dagokionez, lan-harremanen eredu berria sustatu dugu, etengabeko elkarrizketan oinarritua. Lan-harremanetan euskalduntzea indartu dugu eta langileen kudeaketan genero ikuspegia txertatzen egin dugu lan.

Administrazioaren modernizazioari dagokionez, herritarrei Aldundiarekin tresna elektronikoaren bidez komunikatzeko eskubidea bermatzeari begira, **administrazio elektronikoa** garatu dugu. Beste aldetik, Gardentasunean aurrerapauso garrantzitsua eman dugu Foru Arauaren onarpenarekin. Foru arau honek nabarmen gainditzen ditu Europako Hitzarmenak eta Estatuko Legeak ezarritako betebeharrak.

Gipuzkoako **Open Data** plataforma komuna sortu dugu. Gipuzkoako atari global bat da eta, aldi berean, erakunde bakoitzak pertsonalizatu dezakeen ataria du. Beraz, plataforma hau ez da soilik Gipuzkoako Foru Aldundiaren Open Datako ataria. Erabiltzaileei Gipuzkoako erakunde guztien informazioa modu estandarizatuan eta errazean lortzea ahalbidetzen dien ataria da, eta hori guztiz berritzailea da.

Kontratazioan klausula sozialak txertatzeko foru araua landu da, eta hori onartu ondoren klausulak horiek txertatzen direla ziurtatzeko neurriak bideratu dira.

Kontratazio Zentralaren bidez esleitutako kontratuak: legealdian 5.000.000 €-tik gora aurrezteko lortu da Gipuzkoako erakunde publikoentzat. Udalen balorazioa oso positiboa da lortutako aurrezpenengatik, beraiei kendutako lan-zamarengatik eta, telefoniako kontratuan frogatu ahal izan dugun bezala, elkartzeak indarra ematen dielako hornitzaileen aurrean sortu daitezkeen arazoei konponbidea bilatzeko.

Diputazioko ibilgailu parkea optimizatzeke eta kostua murrizteko neurriak ezarri dira: flota murriztu da, pertsona zehatzei esleitutako ibilgailuak mugatu dira, erabilera partekatua zabaldu da eta ibilgailuen erosketa eta mantenuari buruzko neurriak ere hartu dira. Urtean 693.000 € inguruko aurrezpena estimatu da.

Larrialdien eta suhiltzaileen zerbitzuaren helburua da sortu daitezkeen arrisku larriko egoerei erantzun egokia ematea, eta horretarako beharrezkoa den antolaketa-ingurunea prestatzea. Alde batetik, onartu berria



zen Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Larrialdi Foru Planaren garapena eta ezarpena lantzen aritu gara b zerbitzuekin elkarlanean zaugarri eta baliabideen katalogoak betetzeko. Bestetik, Suhiltzaileen zerbitzua eg dugu.

2015-2019 Legealdirako proposamenak:

1. **Zerbitzu publikoen aldeko apustuarekin jarraitu behar dugu**, azpikontratatura dauden zerbitzu publikoak pixkanaka berreskuratuz.
2. **Gobernu irekian sakontzen jarraituko dugu**: Gardentasunaren foru arauan ezarritako neurriak beteko ditugu, Open Datako ataria behar bezala mantendu eta parte-hartzea ere aterki honen pean kokatu.
3. Herritarrei tramiteak elektronikoki egiteko eskubidea bermatzeko **espediente elektronikoa** guztiz garatuko dugu.
4. **Politika publikoen ebaluaziorako metodologia** eta tresnak ere garatu behar ditugu, kudeaketa eraginkorragoa egiteko eta herritarrei kudeaketa horren berri emateko gardentasunez, egindako lana ezagutu eta balora dezaten.
5. **Izapide administratiboak errazten** eta prozesuetan hobekuntzak bultzatzen jarraituko dugu. Horrekin batera, tramiteak egiteko irisgarritasuna hobetuko dugu herritar guztientzako baina, bereziki, behar bereziak dituztenentzako.
6. **Aldundiko IKT- Informazio eta Komunikazio Teknologien Plan Estrategikoa ezarriko dugu.**
7. **Klausula sozialak** kontratazioetan txertatzen direla ziurtatuko dugu, eta jarraipena eta balorazioa egingo diegu.

2

*GIPUZKOARRAK
ETA GIPUZKOA*



2.1.- GIZA ESKUBIDEAK ETA MEMORIA HISTORIKOA

EH Bilduren gobernu jarduna, pertsona guztien eskubideen errespetuan, bizikidetzaren demokratikotasuna eta memoria historikoa berreskuratzeko lanean oinarritu da. Zehazki, esparru honetan egindako lanak lau zutabe izan ditu:

- Euskal Herrian zabaldu den bake prozesuarekin konpromisoa
- Gatazkaren jatorrian eta ondorioetan diren arazoengatik inguruko elkarriketa, bake prozesua indartzeko Foro Sozialaren Gomendioak aintzat hartuta
- Desberdinen arteko kontsentsua/elkarlana
- Euskal jendartearen gehiengoak erabakitzen duenari begirunea.

Herritarrengandik gertuen diren eta herritarren nahiak eta lehentasunak argien islatzen dituzten instituzioek badute zeregina testuinguru honetan. Ildo horretatik, herriari konponbide demokratikoa sustatzeko baliabideak eta aukerak zabaltzeko tresna berri bat eskaini zien Gipuzkoako Foru Aldundiak 2013an aurkeztutako "Giza eskubideak, Oroimenaren berreskurapena eta Bizikidetzaren zabaltzeko plana"-ren baitan aurkeztu zen gisan, hurrengo legegaldian jarraikortasuna izango duena.

Plan horren baitan, tokian tokiko inplikazioa lantzea oso garrantzitsua izanik, udalek ekimenak bultzatzea funtsezkoa da. Hau da, marko teoriko partekatuetan, herritarren beharretatik eta eskarrietatik hurbilen diren instituzioetatik konponbide-prozesua eraikitzeko herritarren ekarpenak jasoko dituen lan-programak prestatu behar ditugu.

Gure gobernu programak elkarlanerako diseinua izanda ere (udaletxeekin batik bat), berezko ekinbidea markatu nahi du. Orientabide eta bitarteko propioak izanda, bere ezaugarrien berezko erantzunak beste instituzioekin batera lan egiteko aukera eskaintzen du, jardun-lerroen arteko bateragarritasunari lehentasuna emanaz.

2015-2019 Legealdirako proposamenak:

Bakea

1. **Zauriak itxi:** errekonozimendua eskainiko diegu legealdi berrian ere sufrimendua pairatu duten eta oraindik pairatzen edo jasotako errepresioa/biolentzia ukatuta edo ezkatuta izan dituzten pertsonen eta jendartearen sektore guztiei. Genero perspektiba indartuko dugu biolentzien ondorioak aztertzerakoan.

2. **Justizia Trantsizionala** sustatzen jarraituko dugu gaiaren inguruko jardunaldiak eginez, eta bertan nazioarteko zein bertako adituek hartuko dute parte. Era berean, egia osoa ezagutze aldera, Egia Mekanismoen lanketa (Egia batzordeak eta halakoak) bultzatuko ditugu.

3. **Biktima guztien sufrimendua:** Biktimekin lan egingo dugu: beharrak, gabeziak eta proposamenak entzuteko. Horrekin batera, jardunaldiak egingo ditugu berriz ere udaletako ordezkari politikoekin biktima guztien sufrimendua aitortzea helburu duten ekintzak bultzatzearen.

4. **Datu-basea:** Gipuzkoar guztiek egia ezagutzeko duten eskubidea laguntzeko diseinatutako datu-basea konpartituko dugu gurekin elkarlanean ari diren guztiekin, denontzako tresna izan behar baitu. Bestalde, datu-base hori osatzen hasi behar dugu, eta tokian tokiko datuek ere izan behar dute lekua datu-base horretan.

Bizikidetza demokratikoa

5. **Bizikidetza plana** Gipuzkoako beste 15 bat udaletara eramatea: Martxan dauden esperientzien balorazioa egingo dugu eta, balorazio horren ondorioz, aldaketak edo hobekuntzak proposatuko ditugu.

6. **Elkarlana eta formazioa:** Giza eskubideen inguruko lana egiten duten elkarte eta antolakundeekin elkarlana eta etengabeko komunikazioa sustatzen jarraituko dugu legealdian zehar, proiektu zehatzak bideratzeko diru-laguntzak esleitzen. Aipatu norabidean, formakunzioa eta lan-tresnak eskainiko dizkiegu udalei.

Giza eskubideetan oinarri duen kultura sustatzeko:

7. **Ezagutza:** argitalpenak, erakusketak, mintegiak. "Cartooning for peace" erakusketa eskainiko diegu udalei eta lagunduko diegu gaia eskoletan lantzen.

8. **Hezkuntza:** udal teknikariak, hautetsiak trebatuko ditugu giza eskubideen aldeko jardunean.

9. **Komunikabideak eta giza eskubideak.** Horri buruzko ziklo bat martxan jarriko dugu. Urtero sari bat emango diogu komunikabideetan giza eskubideen inguruko langairen bati, ezinbestekoa baita komunikabideen parte hartzea giza eskubideen sustapenean

Oroimen historikoa

Botere publikoak bete behar du gertatu denaren oroitzera irarazteko duen obligazioa, egiarekin konprometitu behar du eta gizarteak zer gertatu den jakiteko duen eskubidea bete.

10. **Gipuzkoan 1936-1939an afusilatu-desagertuak izan zirenak bilaketa/deshobiratze eta identifikazio lanak bultzatu eta laguntzea.** Xede horrekin, ADN banku baten sorrera sustatuko dugu, identifikazioak errazteko. NBEk "indarrez desagertuen lan taldeak" berriki ebatzi duen bezala, desagertze kasuak ikertzea instituzio publikoen ezinbesteko zeregina da. Jada indarrean dauden beste proiektuekin (Aranzadi-Eusko Jaurlaritza) elkarlanean aritzeko gure prestutasuna adierazten dugu.

11. **Proiektuen finantzaketa.** Jarraituko dugu memoria historikoaren inguruko lana burutzen duten udal, elkarte eta antolakundeekin elkarlana eta etengabeko komunikazioa sustatzen legealdian zehar. Proiektu zehatzak bideratzeko diru-laguntzak emango ditugu legealdi honetan ere, betiere irizpide nagusiei erantzuten dietela kontuan hartuta. Azpimarra egingo dugu ikertu gabeko gaietan, eta horretara bideraturiko beka ezberdinak sortuko ditugu.

12. Gipuzkoako Memoriaren Mapa: Gure historia garaikidea ezagutu eta oroimen historikoa berreskuratzeko herrietan orain arte egindako ekimen guztiak eta herri horietan bildutako datuak jaso behar dira. Mapa horrek gertakariak, lekuak eta testigantzak barnebilduko ditu. Orain arte egindako ekintza desberdinak ikusita eta antolatze beharra dagoela kontuan hartuta, metodologia bateratzailea erabiliko dugu.

13. Lantresna berriak: Oroimen Historikoa lantzeko bitarteko berriak sortuko ditugu. Metodologia gida, datu base bateratuak, denek modu berdinean jasotzeko informazioa. Era horretan, artxiboak publikatu, elkartu, pixkanaka digitalizatu eta bilduko ditugu, lana errazteko eta denontzat eskuragarri egon daitezen. 5 EUSKARA

Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza da eta herri gisa bereizten gaitu. Unescoren arabera, euskara hizkuntza gutxitua eta zaugarria da bere lurraldean, atzerakada eta galera handiak izan baititu hedatuta dagoen lurralde eremuan eta erabilera funtzio sozialetan. Zorionez, euskarari bizirik eusteko determinazioa erakutsi du herri honek, euskara biziaren alde eginez, belaunaldi berriei euskara helaraziz, euskara ikasiz eta erabiliz, euskararen normalizazioan egindako aurrerapausoen protagonista bilakatuz.



2.2.- EUSKARA

Euskarak behar ditu Europako estatu-hizkuntza ofizialen berdintasuna, simetria eta tratu ekitatea. Euskarak kultur asimilazio eta hizkuntza ordezkapen prozesu luze eta dinamiko bat bizi du, Espainiako eta Frantziako estatuen jazarpen linguistikoaren eraginez, eta auzo hizkuntzekiko egoera asimetrikoan aurkitzen da. Bi estatu horiek beren hizkuntzak inposatzen jarraitzen dute (euskaldun guztiak behartuak gara erdaraz bizitzera), eta euskaraz bizitzeko debekuak, oztopoak eta trabak ezartzen dizkigute.

Gipuzkoan euskara egoera gutxituan jarraitu arren, lurralde euskalduna da, ezagutzari dagokionez: biztanleen %53 euskaldun eleaniztuna da eta beste %23 euskaraz ulertzeko gai da; gainera, 2 eta 30 urte bitarteko gazteen % 77 euskaldun eleaniztuna da. Gipuzkoan kalean neurtutako elkarrizketen % 33 euskaraz izan dira, 2011n. Gainera, ez da irudi estatikoa, gero eta gehiago erabiltzen da, gipuzkoarrok euskaraz bizitzeko joera dugu. Edonola, euskararen normalizazioa lortzeko funtsezkoa da euskaldun berri gehiago izatea, euskaraz bizi ahal izateko guztiok euskara ezagutzea beharrezkoa baita.

Gipuzkoaren ezaugarri garrantzitsua da bere herri gehienetan euskaraz dakitenak gehiengoak direla: biztanleen %70 edo gehiago euskalduna duten 56 herri eta 5 eskualde ditu, eta herritarren erdia baino gehiago euskaldunak diren 82 herri eta 10 eskualde. Hala ere, gune soziolinguistiko euskaldunenetan (euskararen arnaguneak) geldialdi bat sumatzen ari da: euskaldunen proportzioan galdu dute Gipuzkoako 39 herrik, eta euskararen kale erabileraren datuetan ere sumatu da gelditzea.

Euskara gure komunikazio hizkuntza nagusi izan dadin bultzatzen dugun gizarte-eraldaketa gure hizkuntza-eskubideen aldeko borroka da, alde batetik, askatasuna eta justiziaren aldekoa. Eta bestetik, gure eredu propioa gauzatzea da, hizkuntza hegemonian aldatzea eragitea sakoneko gizarte eraldaketa gauzatzea baita. Horrenbestez, 2011-2015 legegaldian abiatutako Hizkuntza Politika Berria ezartzen jarraituko dugu, Gipuzkoa (eta Euskal Herria) berreuskalduntzeko. Bide horretan, hauek dira garatuko ditugun ekimen nagusiak:

1. **Foru administrazioa euskaldundu:** Bere jarduera osoa euskaraz egitera iristeko plana zehaztuko du Aldundiak.

2. **GIPUZKOA EUSKALDUNA estrategia:** Gipuzkoako plan estrategikoa edo ekintza plana zehaztuko da, herrialdeko herri erakundeekin eta Euskararen Foroarekin batera, Gipuzkoa berreuskalduntzeko bide orria osatu asmoz.

3. **Udalen euskalduntzea:** Udalen hizkuntza politikaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko baliabideak sustatuko ditu GFAk.

4. **Euskara ikastea dohan:** Helduen euskalduntzearen doakotasunerantz urratsak emango ditu Aldundiak, udalekin eta arloko eragileekin elkarlanean, diru laguntzen eraginkortasuna bilatuz, arreta berezia ezarriz gizarte egoera zailenetan dauden herritarrengan (langabetuak, migratzaileak...) eta Jaurlaritzaren inplikazioa bilatuz.

EUSKALTEGIETAKO MATRIKULAZIOA GIPUZKOAN



5. **Alor sozioekonomikoa euskalduntzea:** Beren zerbitzuak euskalduntzeko diru laguntzak eskainiko dizkie Aldundiak enpresei. Era berean, diru laguntzak eskainiko zaizkie enpresei, Lanbide Heziketako praktikak euskaraz antola ditzaten.

6. **Hedabide euskaldunak:** Arloko eragileekin adostuko du Aldundiak euskarazko hedabideei zuzendutako diru laguntza politika.

7. **Sentsibilizazioa:** Euskaraz biri diren eta euskaraz bizi nahi duten herritarrenganako enpatia eragiteko herritar erdaldunei zuzendutako sentsibilizazio ekintzak egingo ditu Aldundiak.

8. **Euskararen transmisioa:** Familietan euskararen transmisioa bizkortzeko, Proiektu Elkartuen dinamikan udalerrri txikiekin batera landu den eredia orokortuko da herrialde osora.

9. **Gazteria:** Gazteriari begira GFAk egingo duen eskaintza euskaraz izatea bermatuko da.

10. **Lankidetzta:** Euskararen egoeraren azterketa, eta irtenbideen inguruko gogoeta eta ikerketa partekatuak bultzatuko ditu GFAk, Unibertsitateekin, soziolinguistikaren esparruko eragileekin eta, oro har, euskalgintzarekin, hizkuntza-politikaren jarduketa eraginkor baten mesedetan.

2.3.- KULTURA

Euskal herritar orok bere herriaren historia, ohitura eta kultura ezagutu eta sakontzeko eskubidea du; era berean, eskubide osoa du beste herrialdeetako kulturak ezagutu eta bereganatzeko. Kultura, hizkuntza, hezkuntza eta beste zenbait eskubideren moduan, herri eskubide kolektiboa izateaz gain, pertsona bakoitzak duen eskubide indibiduala ere bada. Beraz herritarrei auzo-herritik hasiz Euskal Herri mailan sorturiko kulturaren jabe eta partaide izatea zor diegu.

EH Bildutik Euskal Herriak bizi duen aniztasun kulturala aldarrikatzen dugu, ekosistema bizi gisa. Kulturak egunerokoan osatzen eta eguneratzen doazen egitura sozialak diren neurrian, inguruarekin harremanean eta inguruarekin solaskidetzan ulertzen dugu. Horren baitan, euskal kultura eta euskarazko kultura ditugu aniztasun guzti horren kohesionatzaile eta ardatz.

Halaber, kultura gizarte eraldatzaile ere badela uste dugu. Izan ere, kulturaren bidez jendarte eraiki eta eraldatu egiten da balio ezberdinen sustapenaren bidez. Horien artean bereziki azpimarratzen ditugu: feminismoa, aniztasuna, elkartasuna, internazionalismoa, ekologismoa, parte hartzea... Kultura, entretenimendu edo aisialdi soila baina askoz gehiago da; kultura gizarte baten garapenerako ezinbesteko elementu bat da; herri baten oinarri sinbolikoa elikatzen duen lehengaia. Gizarte batean kultura mota ezberdinak elkar bizi dira, baina ezinbestekoa izan behar da guztiak lotu, kohesionatu, aglutinatuko dituen bat izatea; herri honen bizinahia elikatuko duena; kasu honetan, euskal kultura ekarriko genuke lehen plano horretara.

Azkenik, herritarren auto eraketa eta jabeakuntza edo enpoderamendua bilatuko duen kultur ereduaren alde egiten dugu; herritarrak sortzaile eta parte hartzaile izango dituen. Horretarako auzolana oinarri izango duen herritik sortutako eta herriarentzako kultura bultzatuko dugu; Administrazioa laguntzaile izango delarik.



Legealdirako proposamenak:

1. Donostia 2016:

- **Herritarren partaidetza:** Proiektua herritarrekin batera egin nahi dugu, herritarren parte hartzea bultzatuko duen proiektu integratzailea eraikiz eta herritarren balio erantsia sustatuz, hiria egiten duten herritarren jardunaz baliatuz beraz, horretarako parte hartze prozesu eta dinamikak sustatuz.

- **Euskara.** Euskara Donostia, Gipuzkoaren eta Euskal Herriaren bihotza dugu, eta “D-2016”ren ikur bilakatzea joko dugu, oztopo guztien gainetik. Bestetik, kultura soziala kolore eta ahots desberdinez jantzia dagoen neurrian, guztiak kontuan hartzea joko dugu, bozgorailu bilaka daitezzen D-2016 bitartez.

- **Euskal Herria.** Donostia proiektatzen dugun bitartean, Euskal Herria jarri nahi dugu eszenatokiaren erdian. “D-2016” promozioan, turismoan edo propagandan eskaintzen diren aukerak baliatuko ditugu Euskal Herriko beste lurraldeekin harremanak eraiki eta sendotzeko. Bereziki Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako eragile eta instituzioekin hartu-emanak bilatuko ditugu Euskal Herriko barne kohesioan urratsak emanez. Barne kohesio horrek, halaber, aukera eskaini behar digu Europako beste izaera kultural propioekin sarea osatzeko, eta herrien izaera propioa aldarrikatzeko.

- **Gipuzkoa.** Barne-kohesio honetan, indar berezia jarri behar dugu D-2016 ez dadin izan soilik Donostiarako, herrialde osorako baizik. Zentzu honetan, herrialdea saretzeko aukera paregabea da, eta eskualde ezberdinen arteko sinergia eta aktibitateak garatzeko aukera ematen du. 2016an, Diputazioak programazio paralelo bat eskainiko du herrialde osoan zehar.

- **Bakea.** Euskal gatazkaren konponbide demokratikoa, bakegintza eta normalizazio politikoa nazioarteratzen jarraitzeko aukera paregabea eskaintzen du.

- **Kultur eredu.** Herri partaidetza, kultura merkantilista alboratuz, kultura soziala, herrikoa eta anitza eskaini. Beste aldetik, herritarrak kultura kontsumitzaile hutsa izatetik, kultura sortzaile izateko proiektuak sustatu.

- **Nao proiektua.** Prozesu dinamiko eta bizi gisa ulertzen dugu eta eraikuntza prozesuari dagokion balio erantsia emango diogu. Proiektu honek, beste aldetik, Pasaia badi biziberritzearen parte bat bezala integratu behar da.

2. **Gipuzkoako Kultura Mahaia** sortuko dugu. Gipuzkoako kulturaren diagnostiko konpartitu batetik abiatuta, bilgune bat osatzea beharrezko jotzen du EH Bilduk. Espazio berriak sortzearen alde egingo dugu, bertan kultur eragile eta sortzaileak, eta erakunde publikoak bil daitezzen kultur jardunaren inguruan erabakitzeko, organo instituzionaletatik kanpo.

3. **Euskarazko kulturaren oinarritutako kultura politika** ezarriko dugu. Horretarako, elkarren osagarri izango diren hizkuntza politika eta kultur politika landuko ditugu.

4. **Kultura saretzen** egitasmoa, kultura teknikarien koordinazio-gunea indartu eta zabalduko dugu. Indar berezia jarriko dugu Kultura Saretzeneko foro politikoa indartzeko. Gipuzkoako Udal guztietako kulturako arduradun politikoak eta aldundikoak elkarlan egonkorrean aritzea sustatuko dugu.

5. **Gipuzkoako kultura azpiegitura**, inbertsioen eta beharren mapa eguneratuko dugu. Honek lurralde oreka ez ezik, eskualdeen baitako eta kultur eremu eta espresioen arteko oreka sustatzen lagunduko du. Helburua kudeaketa eta erabilera sortzailea proposatzea.

6. **Kultura zirkuituak** eratuko ditugu, eta euskal sortzaileen katalogoak eskaini. Era berean, kulturaren kontsumoa sustatzeko plana garatuko dugu, gizarte eragileen, profesionalen eta instituzioen arteko lankidetzara iraunkorra bermatuaz.

7. **Euskal kulturari ikusgarritasuna**, lehenetsia eta plazak eskainiko dizkiogu.

8. **Gipuzkoako museoaren sarea** indartuko dugu. Sare honetan Gordailua ardatz nagusietako bat izango da.

9. **Ondare ez-materialen bilketa** egingo dugu. Horretarako, orain arte bildu direnak jaso eta aztertu beharko dira. Honekin batera kultur transmisioa sustatuko dugu, eskolan nahiz kalean.

10. Liburutegi Nazionala iritsi bitartean **Koldo Mitxelena Kulturunea Euskal Literaturaren eta Euskal Komikigintzaren gune** izan dadin lan egingo dugu.

11. **Tabakalera**. Euskal Herri osoko sorkuntza gune nagusia izatea nahi dugu. Euskal Herriko sorkuntza guneak saretuko dituen eta parte hartzea sustatuko duen proiektu irekia izatea nahi dugu. Horretarako Hezkuntza garaikidea lantzen duten eragile eta ekimenen kartografia egin beharko du. Kultura ereduaren aldaketa sustatuko dugu gizarte ahaldunduz, sorkuntza aktibo baten alde jardunaz eta euskal sorkuntza propioa eta aktibo bat sustatuaz.

2.4.- PARTE HARTZEA

2011n herrialdeko erakunde gehienak kudeatzera iritsi ginenean, politika publikoetan herritarren partaidetza anekdotikoa zen Gipuzkoan. EH Bilduk, berriz, hasieratik herritarren parte hartzea ildo estrategiko bezala hartu zuen eta legealdi osoan zehar, pausoz pauso, ekimenak proposatu eta gauzatu ditugu norabide horretan. Adibidez, Igeldoko herritarrei udalerrira izateko nahiaren inguruan galdetu genien. Horrez gainera, ugari eta askotarikoak izan dira gure ekimenak, ehunka, eta demokrazia zuzena arautzeko proposamenak ere egiten ari gara udaletan.

EH Bilduren ikuspuntutik, herritarren parte hartzearen ondorio zuzena herritarrek boterea eskuratzea izan behar du, hau da, norbanako eta komunitate askeagoak eraikitzeke tresna da parte hartze politika.

EH Bildu sustatzen ari den parte hartze ereduak hiru ezaugarri ditu: kalitatezkoa, eraldatzailea eta eraikitzailea. Erakundeetatik informazio egokia eta gardena eskaini behar da, eztabaidatzeko eta erabakietan eragiteko aukerak sortuko dituen, kontrol tresnak indartuz. Hitz bitan, erakundeen humanizazioa eta desburokratizazioa sustatuko da. Parte hartzea berdintasun ikuspuntutik ere landu behar da: orain arte estrukturaliki bereizkeria egoeran egon diren sektoreen ahotsa entzun dadin.

1. **Herritarren parte hartzea politika publikoetan**: Aldundiko departamentu guztiek politika publiko esanguratsuak herritarren partaidetzarekin definituko, landuko eta hobetuko dituzte. Politika egiteko modu berri honen ereduak izango da 2011-2015 Legealdian bus zerbitzua hobetzeko egindako prozesu parte hartzailea. Urteetan jarraitu izan den erabakitzeko bideak alde batera utzita, gipuzkoarren behar eta nahietan oinarritutako garraio zerbitzua eskaintzea helburu zuen prozesu parte hartzaile erraldoia aurrera eramanez dugu. "Herritarrekin martxan, autobus zerbitzua hobetzeko" prozesuan 56 herritako 4500 pertsonak hartu dute parte, eta 3.000 ekarpen baino gehiago egin dituzte, horietatik %75 hartu da kontuan.

2. **Herri galdeketa: Herrialde mailako galdeketa antolatzeke konpromisoa hartzen dugu, lurraldearentzat garrantzitsua den gai buruz. Zentzu honetan, Zestoako Osinbeltz harrobiari buruzko galdeketa 2015eko azaroan egingo da eta Euskal Herri mailan azpiegitura handi baten inguruan egingo den lehen herri galdeketa izango da. Legealdi honetan egindako herri galdeketa (Igeldo, Itziar...) ikasitakoa, legealdi berrian antolatuko ditugun herri galdeketa hobeto antolatzeke erabiliko dugu.**

3. **Partaidetzazko aurrekontuak**: Lurralde guztiko herritarrek izango dute aukera Gipuzkoako aurrekontu proiektuan eragiteko. Eskualde guztietan parte hartze prozesuak egingo dira urtero, herritarrek Gipuzkoako



aurrekontuaren diru kopuru bat zuzenean erabakitzeko. 2011-2015 legealdian lehengo bi egitasmoak aurrera eramanean ditugu, gero eta diru gehiago eta herritar gehiago inplikatur. Zehazki, 2014 aurrekontuaren 500.000 euroekin zer egin Urola erdiko herritarrek erabaki zuten eta 2015eko aurrekontuaren 2.000.000 euroekin zer egin erabaki dute Urola erdia, Tolosaldea, Bidasoaldea eta Oarsoaldeko herritarrek. Datorren legealdian, ekimen hau herrialde osoan zabalduko dugu.

4. **Udalak:** Gipuzkoako udalek udalerrietan herritarren parte hartzea bultzatzeko Aldundia bidelagun izango dute, sustapen lana sakonduko dugu Herritarrekin sarearen bidez eta kofinantziaketaren bidez.

5. **Herri mugimenduarekin elkarlanean:** eragileekin elkarlanean jarraituko dugu, elkarriketarako guneak zabalduz eta beraiek duten parte hartzea sustatzeko gaitasuna potentziatuz.

6. **Araudia eguneratu:** Herritarren Partaidetzari buruzko uztailaren 8ko 1/2010 arauaren parte hartzeko ebaluazioan (2010-2015 epealdia) oinarrituta araua egokituko dugu. Bost urteko ibilbidean oinarritutako egokitzapena izango da.

2.5.- INGURUMENA

Hazkundera oinarrituriko eredu ekonomikoak muga ekologikoak ditu eta ingurumena ez da gure egunerokotik at dagoen zerbait, deslotua, eta zaindu beharrekoa. Ingurumena, zeharkako arloa da eta gure gizarte eremuan integratua dago: ekonomian, ongizatean...

Garapen sozioekonomikoak ingurumenean duen eragina neurtu ez ezik, eragin horren baitako erabakiak eta neurriak hartu behar dira. Errentagarritasun soziala, eta beraz pertsonen ongizateak helburu izaten jarraituko du, baina etorkizun osasuntsurik izango badugu, garapen sozioekonomiko horri mugak jarri behar dizkiogu, garapen horrek sostengarria izan beharko du. Ondorengo belaunaldiak hartu beharreko konpromisoa da egun ditugun bizi-baldintzak mantendu edota hobetzea, eta horri esaten diogu garapen jasagarria.

EH Bilduren helburu estrategikoa da Gipuzkoa iraunkorra egitea, eta zentzu horretan bukatu dira baliabide naturalak neurrigabe ustiatzeko eta proiektu faraonikoen garaia.

a) Hondakinen kudeaketa

Zero Zabor filosofiari jarraituz, errausketan oinarritutako kultura batetik birziklapenean oinarritutako beste kultura batera pasatzeko egundoko jauzia eman dugu legealdi honetan. Gipuzkoako herri gehien-gehienek neurriak hartuak dituzte gehiago birziklatzeko, eta emaitzak agerikoak dira: gaur egun **%50tik gora birziklatzen ari gara**, duela bost urte %20 inguru birziklatzen genuenean. Gipuzkoarrek aldaketa handia eragin dute oso denbora laburrean, eta horregatik Gipuzkoa erreferentzia bihurtu da hondakinen kudeaketaren alorrean.

Eta horrekin batera, gure errealitatera eta Europaren irizpideetara egokitutako **azpiegitura sarea** diseinatu dugu. Lehen errauskailua zen ardatza, baina Gipuzkoak ez du azpiegitura horren beharrik. Hortaz, EH Bilduk atzera bota du egitasmo hori, eta gure beharretara egokitutako azpiegitura sarea jarri dugu mahai gainean: konpostatze plantak, tratamendu mekaniko biologikorako planta bat eta inerteen biltegi bat; gehi plastikoak eta papera birziklatzeko plantak, garbiguneak eta abar. Sare horrekin milioika euro aurreztuko ditugu gipuzkoarrok, lanpostu asko sortuko dira eta hari esker, Gipuzkoak gaur egungo zabortege kutsagarriak itxi ahal izango ditu.

2015-2019 Legegintzaldirako NEURRI ZEHATZAK

1. Errauskailurik ez! Zubietan herritarrei galdetu gabe inposatu nahi zuten mega-proiektu honen aurka agertzen da EH Bildu.

2. **Gaikako bilketa**, 2016rako %60a izatea. Gipuzkoako Alderdi guztiek onartutako eta indarrean dagoen PIGRUGen jasota dagoen helburua da.

3. **Sasieta eta Lapatx zabortegeiak ixtea**. 2014ko abenduan Zarautzeko zabortegearekin egin genuen moduan, hurrengo hilabetetan beste bi zabortegeiak itxiko ditugu. Horrela, Gipuzkoa izango da Euskal Herriko lehenengo zabortegeirik gabeko herrialdea.

4. **Azpiegitura sarea bukatzea**: Zubietako TMBa eta Epele, Zubieta eta Lapatxeko konpostaguneak, tramitazio eta eraikitze fasean daudenak, bukatuko ditugu.

5. **Zestoez erabakiko dute Osinbeltz inerteen biltegiaren inguruan**: herri galdeketa egingo dugu 2015eko azaroan. Galdeketa hau Euskal Herrian azpiegitura handi bati buruz egingo den lehenengo herri galdeketa egingo da.

b) Lurralde antolaketa

Indarrean dagoen lurralde eredu agortuta dago. Krisia hasi aurretik euskal ekonomiak zuen abiadura azkarra eta gorantz zihuan eraikuntza sektorearen ondorioz, lurzoru naturalen eta urbanizazioen eraldaketa-indizea urteko 700 hektarea baino gehiagokoa izan da; hau da, biodibertsitateari eragindako kaltea oinarri hartuz, artifizializazio indizea oso larria da. Are gehiago Gipuzkoan, estatuko lurralderik txikiena izanik.

Azken hamarkada honetan lurralde antolamendurako artezbidetean (LAA) hasitako aldaketek eta horren ondorioz egindako lurralde plan partzialek (LPP) egungo ekonomia eredu neoliberalaren jarraipena dute xede; hori dela-eta, benetako garapen premiak betetzeko behar zen lurzoru baino askoz ere gehiago sailkatu da hirigintzako eraldatze jardueretarako. EH Bilduk dinamika hori geldiarazi eta irauli nahi du, jada sailkatuta dagoen lurzorutik hasita, sailkatutako lurzoruan betetzeko daudenak baliatuz eta jada eraldatuta dauden lurzoruen erabilera lehenetsiz.

EH Bilduk trantsizio baten beharra proposatzen du, aztarna ekologikoa minimizatzea xede izango duen lurralde antolamendua lortzeko bidean. Horretarako, garapen iraunkorreko printzipioak bultzatuko ditugu lurralde antolamendurako artezbidetean, lurzoru eraikigarriak herritarrek dituzten benetako premien eta hiriaren hazkunde orekatuaren arabera eskaintzeko. Horrela, baztertu egingo dira erabilera soziala ezbaian duten azpiegiturak eta ingurumen kostu handia duten azpiegiturako eta hirigintzako makroproiektuak, sektoreko lurralde plan berrietan zehaztu direnak.

Lurraldea orekatzeari emango diogu lehentasuna, Euskal Herri osoaren ikuspegia hartuta, eta herritarren jarduerak modu berezi batean ezarriko dira, ingurune naturalaren kontserbazioaren eta ingurune horren erabilera eraginkor eta bidezkoenaren arteko oreka bermatzeko, betiere, iraunkortasunaren hiru dimentsioak aintzat hartuz (gizartekoa, ekonomikoa eta ingurumenekoa).

Azken finean, Gipuzkoako artifizializazioa geldiarazi eta iraultzea da gure helburu nagusia, hau da, hurrengo belaunaldiak hipotekatuko ez dituen lurralde oreka bat lortzea.

2015-2019 Legegintzaldirako NEURRI ZEHATZAK

1. Pasaiaiko badia eraberritzea: kanpoko portua eraikuntza behin betiko geratu den honetan, Uliatik Jaizkibelerako tartea natura erreserba izendatuz.

2. Pasaiaiko Kanpo Portuaren eraikuntza proiektua behin betiko bertan behera utzi eta, Natura2000 Sarearen baitan, Ulija-Jaizkibelgo itsas erreserba sortzea proposatzen dugu.

3. Lurralde-antolamendurako artezbidetean (LAA), Lurralde plan partzialak eta arloko lurralde planak eguneratzea.



4. Sektore-politikan eta lurralde-plangintzako politikan, klima aldaketa eta biodibertsitatearen kontserbazioa kontuan hartzea.

5. Lurzoruari eta hirigintzari buruzko legea aldatzea.

6. Lehengo sektorearen indarberritzea kontuan izango duten lurralde planak garatzea.

7. Hutsik dauden etxebizitzetara begira lege berria sustatzea, alokairu sozialaren aldeko ereduak bultzatuz.

c) Bioaniztasuna

Ingurumena zaintzeaz gainera, gure planetako bizidunetzaren eta hauen bizi-ereduez zein kalitateaz ere arduratu behar gara. Hauek dira gure ekosistemaren osagai garrantzitsuenetarikoa, eta beraz hauen kontserbazioa gure biziraupenerako baldintza dira.

Bioaniztasuna berreskuratzeko, baldintza natural ahalik eta hoberenak lortzeko neurriak hartu behar dira ura, airea zein luraren kontserbazioan. Honetarako bioaniztasunaren egoera ezagutzeko azterketak egin eta aurrerapausoak egiteko plangintzak prestatu behar dira.

Errentagarritasun ekonomikoaren irizpide nagusi izateko, bioaniztasun politikak garatzeko ikuspegi nagusia ekologikoa izatera pasako da, errentagarritasun soziala bermatzeko helburuarekin.

Euskal Herriaren aztarna ekologikoa bitik gorakoa da. Hau da, EH bezalako bi eremu beharko genituzke bizi garen bezala bizitzeko. Aztarna hori murrizteko neurriak urgentziaz hartu behar dira.

Jarduera ekonomikoak aztertzean, bioaniztasunaren zaintza eta kontserbaziorako adierazlea txertatu beharko da, soilik errentagarritasunean oinarrituriko politikak alboratuz.

2015-2019 Legealdirako proposamenak:

1. Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legea eta Natura 2000 Sarea uztartuko ditugu, beraien garapenetik sortu beharreko tresnak (babes eremuak, planak, ordezkaritza-organak...) bateragarriak eta eraginkorrak izan daitezzen.

2. Babes bereziko gune gehiago izendatzeko aukerak aztertuko ditugu, bereziki itsas eremuan eta kostaldean, eta lege horiek EAEko korridore ekologikoen sarearekin lotuko ditugu.

3. Dagoeneko izendatuta dauden Babes Bereziko Guneei dagokienez, zaintzarako neurriak areagotuko ditugu; aurrekontu handiagoak eta baliabide gehiago jarriko ditugu.

4. Interes ekologikoaren arabera herriko lurren katalogazioa egingo dugu, eta emaitzaren baitako neurriak hartu. Interes ekologiko handia duten lur publikoak berreskuratu, eta pribatuak baliatzeko aukerak bilatuko ditugu (erosketak, kudeaketa ...).

5. Hiri guneetan bioaniztasunarentzat arrisku edota kalte-iturri diren edo izan daitezkeen faktoreak identifikatu, neurtu eta aztertuko ditugu.

d) Basogintza

Beste eredu sozio-ekonomiko baten oinarriak ezartzearen alde gaude, baita basogintzan eta mendietako kudeaketan ere. Bertako ekosistemetan eta espezieetan oinarritutako basogintza bultzatzen du EH Bilduk. Dagoenari uko egin gabe, baso produktuen dibertsifikazioa, berrikuntza eta nazioartekotzea sustatzen du, bertako espezieen karakterizazio teknologikoa bultzatuz, eta kudeaketa eta ikerketa esparru berriak zabaltuz.

EH Bilduk epe luzerako baso politikak eraikitze aldera lan egiten du, epe luzeko espeziekin lan egiteko. Bertako espezie, baso eta ekosistemetan oinarritutako basogintzara heltzeko, EH Bilduk hiru ardatz dituzten politikak martxan jarriko ditu.

Alde batetik, ekonomia arloko politikak martxan jartzea garrantzitsua da. Esaterako, EH Bilduk Nekazaritzako ustiapenen errenta osagarriaren alde egiten du, bertako ekosistemak zaindu eta ekoiztu ahal izateko. Modu berean, koalizioak fiskalitate berde baten oinarriak martxan jarri behar direla uste du. Gainera, EH Bilduren iritziz, basoaren ekoizpen ezberdinak landu behar dira, zura ez diren beste produktu batzuen kudeaketa eta ekoizpena posible delako, eta horretarako plangintzak abian jarri behar dira.

Politika sozialei dagokionez, basogintzaren alorra esparru egokia da enplegua sortzeko, beste kudeaketa mota batzuk probatuz eta lanaren baldintzak hobetuz. Zentzu honetan, landa eremuan lanpostuak sortzeko apustua egin du EH Bilduk: basogintzako ikasketa eta ikastaroak areagotu behar dira, basoaren kudeaketan adituak sortzeko eta bertan lan egiteko.

Azkenik, ingurumenari dagokionez, bioaniztasunaren galera geldituko duen politikak sustatu behar dira. Gainera, ingurumenarekiko zerbitzuak kuantifikatu egin behar direla uste du, gerora, hartuko diren neurrietan islatzeko.

2015-2019 Legealdirako proposamenak:

1. Administrazio publikoak aitzindariak izan behar dira kudeatzen dituzten mendietan, bertako espeziekin eta ekosistemekin sortutako basoen kudeaketa jasangarria eta bioaniztasunarentzat onuragarria izango den kudeaketa aurrera eramaten:

- Diru laguntzen lerroak bertako espezieak eta ekosistemak hauspotzera bideratu behar dira.

- Lurren banku publikoak sortuko ditugu, irizpide publiko jasangarrien baitako kudeaketa bermatzeko.

- Zaintza programak martxan jarriko ditugu: hitzarmenak jabe pribatuekin edo udalekin espezie autoktonoak indartzeko eta beste kudeaketa bat eramateko.

- Landaretzaren eta faunaren bioaniztasunarengatik, paisaiaren edertasunagatik edo ondare historikoagatik, garrantzia duten eremuak erosteko diru laguntzak ezarriko ditugu.

2. Bertako baso espeziekin ikerketa eremu berriak irekiko ditugu, ildo nagusi hauekin:

- Gaztainondoekin: ADNaren araberako ikerketak, bertako barietateen karakterizazioa egiteko eta gaixotasunei erresistentzia erakusten duten klonak sortzeko eta merkaturatzeko.

- Bertako espezieen egurraren karakterizazio teknologikoa: izugarritzko garrantzia du bertako egurren ezaugarriak finkatzea eta arautzea, erabilera desberdinentzako materialen erresistentziak eta portaerak aurreikusteko.

- Mikorrizazioa eta aprobetxamendu mikologikoak uztartzeko basoaren ekonomian eta errentagarritasuna ikerketetan.

- Hobekuntza genetikoa: bertako espezieen haziekin hobekuntza genetikoko proiektuak ahalbidetzea ezinbestekoa da kalitatezko ekoizpen bat abian jartzeko, baita izurrite eta gaixotasunen kontra borrokatzeko.

- Bertako basoen eta ekosistemen kudeaketa iraunkorra bezain errentagarria gauzatzeko beharrezkoa ikusten da eremu espezifikoko bat. Hau da, ekosistemen errentagarritasunaren arloan, epe luzerako izango liratekeen ikerketa eta froga eremu zehatzak egikaritu beharrekoan gaude.



3. Galtzeko arrisku larrian dauden 26 basafaunako espezie eta 59 flora espezien berreskurapena.

4. Landa eta basoetan bizi diren landare zein animalia espezieen segimendua, babesgunea, ikergunea eta kudeaketa aktibatuko da.

5. Erosketa publikoa: Eraikuntza berrietako proiektuetan, erosketa berdea oinarri hartu eta bertako egurra erosteko eta erabiltzeko sareak osatu. Eskualde mailan, ekoizle, enpresa eraldatzailea eta agente publiko zein pribatuaren arteko elkarlana eta sinergiak bilatu.

6. Biomasaren erabilera eta kudeaketari buruzko ikerketak eta esperientzia pilotuak martxan jarriko dira, beti ere baso autoktonoaren kudeaketa integrala helburu izanda.

2.6.- MUGIKORTASUNA

Euskal Herrian eta Gipuzkoan egun pairatzen dugun garapen-ereduaren iraunkortasun ezan garraioak duen eragina nabarmena da. Errepide bidezko garraioaren nagusitasunak (autoak pertsonen garraioan, zein kamioiak salgaien garraioan) areagotu egin ditu gizarte, ingurumen eta ekonomia arazoak, esaterako: natura-baliabideen kontsumoaren gorakada, emisio kutsagarriak, klima aldaketa, zarata, istripuak, espazio publikoen galera eta segurtasun eza. Hau da, egungo garraio-eredua jasangaitza da, batez ere geroz eta urriagoa den baliabidearekiko (petrolio) erabateko mendekotasunean oinarritzen delako.

EH Bilduk beste mugikortasun-eredu baten alde egiten du. Eredu berri horretan, medio pribatuaren gaintik garraio publikoa sustatzen dugu, eta kutsatzen duenaren gaintik kutsatzen ez duena gailentzen da. Hau da, oinezkoak, bizikletak eta garraio publiko kolektiboa eta unibertuala lehenesten ditugu.

Azkeneko hamarkadetan Gipuzkoan lehenetsunez errepideen eraikuntzan eta kotxe bidezko mugikortasunean inbertitu da eta horrek ondorio larriak izan ditu, bai ingurugiroan baita Foru Ogasunean ere. Neurritz gabeko eraikuntza honek 900 miliotako zorpetze izugarria sortu du, batez ere 2007-2011 legealdian AP-1an eta Urumeako autobidearen obretan izandako desfase onartezinengatik.

Egoera honi buelta ematea lehenetsunezko erronka da Gipuzkoarako. Alde batetik, naturari eragindako zauriak sendatzeko neurriak hartu behar dira eta, bestetik, Bidegi-ren zorrari aurre egin behar diogu. Legealdi honetan neurri zorrotzak hartu ditugu errepideen eraikuntzan kontrol ekonomikorako, eta Bidelan-ekin lortutako akordioaren bidez 20 milioitik gora aurreztu ditugu. Baina zorraren tamaina ikusita, bestelako neurriak hartu beharko dira hurrengo urteotan. Edozein kasuetan, zorraren ordainketak ez dituela murrizketa sozialik eragingo konpromisoa hartzen dugu.

Besta aldetik, zalantzarik gabe, garraio publikoaren sustapena izan da legealdi honetan EH Bilduren apustu estrategiko garrantzitsuenetako bat, eta arlo honetan benetako iraultza suposatuta duten neurriak hartu ditugu:

Txartel bakarra: Mugi benetako iraultza izan da herrialdean, izan ere, garraio bide guztietan txartel bakarra erabiltzeaz gain, tarifa bateratuak ezarri dira, kontagailu bakarra eta abar. Oso sistema aurreratua da eta ez du parekorik inguruko herrialdeetan. Garraio publikoaren erabileraren aldeko apustu sendo du Mugi txartelak eta herritarrek hala ikusi dute, izan ere, hiru herritarretik bik dute Mugi txartela.

Autobus zerbitzu hobea herritarrekin: Garraio publikoaren arloan beste iraultza bat egin du EH Bilduk legealdi honetan: bere eskumeneko herri arteko autobus zerbitzuak hobetzeko prozesu parte hartzailea. 2014ean berritu beharreko autobus emakida guztietan (Ekialdeko eremuan izan ezik, Gipuzkoako gainerako guztietan), eskaintza herritarren beharretara egokitu dugu, eta horretarako inoizko parte-hartze prozesu zabalena egin dugu. Parte hartze prozesu horretan 5000 ekarpen baino gehiago jaso eta horien %75 inguru kontuan hartuta, zerbitzu berriak 2015 urtean jartzen ari dira martxan, %36 gehiago inbertituz garraio publikoan. Eskaintza publikoak %37ko hazkundea izan du eta 555 gidari izatetik 654 izatera pasatuko gara, lanpostu publikoak ere sortuz.

Bizikleta bideen sarea: EH Bilduk Europako estandarrak lortzeko apustu garbia egiten du eta hirietan eta hiriarteko eremuetan bidegorriak

2015-2019 Legegintzaldirako NEURRI ZEHATZAK

1. **Bidegorriak eta oinezkoen bideak:** Erregai fosiletan oinarrituta ez dagoen mugikortasuna lehenetsiko da oinezko zein bizikleta bidezko joan-etorriak sustatuz eta oinezkoen bideak eta bidegorriak eraikitzen, gehien bat herri zein, eskualdeen barruan, herri arteko bizikleta bideen sarea garatuz. Horretarako:

- Gipuzkoako Bizikleten Planak eskatzen duen moduan, urtero 15 miloi euro inbertituko dugu Bizikleten Foru Sarea osatzen joateko.

- Udalentzako diru-laguntza lerro bat irekiko dugu Bidegorrien Udal Sarea burutzen errazteko.

- Lanerako, eskola kirolerako edota ikastetxeetarako joan-etorrietan oinezko eta bizikleta bidezko joan-etorriak sustatzeko programak indartuko dira.

2. **Garraio publikoa:** beharren arabera, distantzia ertain/luzeetarako baliabideak garraio publikora bideratuko ditugu. Gainera, bideragarriak diren heinean motor alternatiboak (elektrikodunak, gasarenak edo hibridoak) lehenetsiko dira. Era berean, MUGI txartel bakarraren hobariak hobetuko ditugu., beste erakundeekin elkarlanean.

3. **Tren zerbitzua:** Tren zerbitzuen eskumenak Gipuzkoako Foru Aldundiarenak ez izan arren, dagoen eskaintza zeharo hobetzeko lan egingo dugu.

- Eibar-Irun trenbidearen bikoizketa: Eusko Jaurlaritzari Eskotrenek ematen duen zerbitzua hobetzeko, Eibar-Irun bitartean maiztasuna handitu eta behar diren bikoizketak berehala egiten hasteko eskatuko dugu.

- RENFE Mugi sisteman integratzea

- RENFEren zerbitzuak hobetzeko eskatu. RENFE/Adif-ek Gipuzkoan kudeatzen dituzten zerbitzuek euskal administrazioen menpe egon beharko lukete.

4. **Donostialdeako tren zeharbidea:** Gizarte trenaren aldeko defentsa sutsua eginez, Donostialdeako tren zeharbidearen egitasmoa berrikusi eta hurrengo gabeziei lehenetsia ematen diegu: Mendebaldetik Donostia edo Irunera bitartean maiztasuna hobetzeko bikoizketa lanak, Loiola eta Herrerako zatiak, irisgarritasun arazoak dituzten geltokien konponketa eta, oro har, Gipuzkoako zatian Euskotren trenbidea hobetzeko premia.

5. **Abiadura Handiko Trenea.** Lanei berehala luzamendua bat ematea proposatzen dugu, gizartean horren premia estrategikoari buruz hausnarketa sakona egin ahal izateko, garraio bidearen kostu globala (ekonomiari, gizarteari eta ingurumenari eragingo diona) kontuan hartuta; horrela, gizarteak partehartzeko prozesu bat zabalduko da, AHTren proiektuaren etorkizunari eta EAEko trenbide-garraioari buruzko erreferendum bat helmuga izango duena.

6. **Hondarribiko aireportuaren luzapena:** EH Bildu egitasmo honen kontra agertzen da, euskal administrazioek euskal airea eta aireportu azpiegiturak kudeatzeko duten beharra aldarrikatzearekin batera. Era berean, Euskal Herriko bost aireportuak lankidetzan eta koordinazioan kudeatzeko beharra ere aldarrikatzen dugu.

7. **Errepideak:** Gipuzkoako errepide sare nagusia bukatutzat ematen dugu Beasain-Bergara ardatzaren eraikuntzarekin. Naturari eragindako zauriak sendatzen hasteko garaia dela uste dugu eta horretara bideratuko da errepide plangintza berriaren inbertsioen zati handi bat.



8. **Errepideen finantziarioa:** Aurreko legealdietan pilatutako zorra kitatu bitartean, diru-sarrerak handiagotuko ditugu, errepideetako erabiltzaileengan ahalik eta eragin txikiena izan beharko dutenak. Edozein kasutan, errepideen finantziarioa adosteko Gipuzkoako alderdi politiko eta eragile guztien arteko akordio politiko zabala bultzatuko dugu. Zorra ordaintzeko zerbitzu sozialetan murrizketarik ez ditu onartuko EH Bilduk; gure marra gorria da.

2.7.- POLITIKA FEMINISTA

Inguruko erakunde zein arlo politikoan indarrean den diskurtso ofizialak krisiari buruz hitz egiten duenean, krisi ekonomiko hutsa dela sinestarazi nahi digu. Baina gaiari ikuspuntu zabalagoarekin ekinez gero, baldintza duin eta unibertsaletan bizitza bermatzeko erronka badugu, krisi sistemiko bat dugula jabetzen gara (zaintzan, ekologian, osasunean, etika eta balioetan, demokrazian,...). Krisi sistemiko honen ondorioz jendea prekarizatzen eta txirotzen ari da, arlo askotan, eta bereziki emakumezkoek pairatzen dute prozesu hori. Izan ere, emakumezkoek jarraitzen dute bizitza aurrera ateratzen zainketa eta etxeko lan doakoa egiten, eta horrek langabezia gero eta handiagoaren edo soldatapeko txirotasunera kondenatzen duten lanen mendeago beraz. Ondorioz emakume askok krisi garaietarako ekonomiara jo behar izan dute: sexua edo etxeko lanak ogibide hartzea. Laburtuz, gero eta zailagoa da emakumeak burujabe izatea, eta horrek bortxakeria matxistarekiko babesgabeago uzten ditu.

Krisi sistemiko honen gako nagusia bizitza bera lehenesten EZ duen gizarte eredu sortu izana da, batzuentzako irabazi ekonomiko hutsa bilatzen duena. **Bizitza ez lehenestea gutxi balitz, ezkutatu egiten du emakumeei ematen zaiela bizitza bermatzeko ardura. Bizitzaren mantenuan dagoen lan ikusezin feminizatu horri ez zaio balore sozialik eman nahi.** Egoera honen aurrean, foru politika feministak bizitza gizarte lehenetasun hartu nahi duen elkarbizitza ereduaren aldeko tresnatzat ditugu.

Baina eredu aldaketa horrek bi galderei eman behar die erantzun: zer nolako bizitzak merezi du bizitzea? Eta nola elkar hartu merezi duen bizitza mota horri eusteko? Bi galderon erantzunek 3 ardatz behar dituzte: Unibertsalitatearen printzipio etikoa. Eredu aldaketa horrek erroko demokrazia behar du, adostasun sozial berriak osatzeko gune eta prozesu parte hartzaileak sortu eta indartzea. Kontuan hartu beharko da sexu-genero irizpidez gain botere harremanetan eragin zuzena duten elementu gehiago ere badirela, besteak beste, erosmen ahalmena, genero edo kultur identitatea edo migrazio statusa. Hauen eta beste elementu batzuen batuketak emakumezko eta gizonezkoen arteko desberdintasun sozialak areagotzen eta anizten dituzte, baina baita genero berekoen artean ere, emakumezkoen artean bertan.

2015-2019 Legealdirako proposamenak

1. Emakumeen bizitzaren prekarizazioa gelditu eta baliabideak eskura ditzaten bermatu.

- Genero dimentsioei aurre egingo dien erreforma fiskal mailakatua: norbanakotze inpositiboa; pobrezia-eraren feminizazioari aurre egin; lan merkaturatzerako sarbidea eta egonkortzea bermatu, baldintza duinak ziurtatuz; zaintza lanen partekatzea sustatu gizonezkoengan; bizitzaren mantenuarekin bat egite arduratsuak dituzten ekimen produktiboak bultzatu.

- Berdintasun, lankidetzeta eta irizpide sozialak oinarri izango dituen lurraldearen garapen ekonomikoa bultzatuko duten babes politiken aldeko jarrera: lan-denboren birbanaketa, feminizatutako esparruetan kooperatiben sorrera, auto-kudeatutako produkzio ereduaren edota elkartrukatze sare informaleen babesa...

- Prestazio ekonomikoaren norbanakotzea eta hauen unibertsalizazioan aurrera egitea.

- Zaintza eta etxeko lanek ekonomiari egindako ekarpena ikusarazi; pertsonen ongizatea neurtzeko garaian, diru-sarrerez gainera bizitza-denboren banaketak eta erabilerak kontuan hartuz.

2. Zaintza eskubidea bermatzea:

- Baliabide publikoak ezartzen jarraitu, pertsonen zaintza lana burutu nahi ote duten, nor eta nola zaindu nahi duten erabaki ahal izan dezaten; eta familia esparruan burututako zaintza lanak baldintza duinetan burutu daitezzen, zaintzaile eta zaindua denarekiko.

- Zaintzaile enplegatuen lan baldintzen etengabeko hobekuntza bultzatu, bai eta GFAko baliabide erresidentzial zein bestelakoena ere.

3. Gobernu onaren bidean:

- Aldundiko berdintasun politikak indartzen joan, kudeaketarako aurrekontuaren %1a horretara bideratuz; sailtako berdintasun unitateak sortuz eta langile trebatuak bertaratuz; Berdintasun Saila langile gehiagorekin hornituz, eta foru gobernuan eraginkortasun erreala izan dezan, GFAko egituraren dagokion lekuan ezarriz.

- Lekuko berdintasun politiken garapena bultzatu eta areagotu: lurraldeko berdintasun teknikarien sarearen bitartez, lekuko berdintasun langileen kontratu eginkorren bitartez, lekuko berdintasun proiektuak lagunduz, eta bereziki 10.000 biztanletik beherako udalerriak lagunduz.

- Gunea indartu, emakume zein talde feminista eta GFAren arteko parte hartze eta elkargune gisa.

4. Sare eta jardunbide feministak indartze bidean

Berdintasuna eta bereziki zaurgarritasun handiena duten emakumeen burujabetza eskuratzeko sare-lana bultzatzen dituzten espazioak indartzen bidean, emakume eta talde feministek dituzten proiektu autonomoak babesteko baliabideak handitu.

5. Biolentzia matxistarik gabeko bizitzak bermatze aldera

- Biolentzia matxista jasan duten emakumeen artapena eta haren prebentzioa, ikuspegi integral eta enpoderatu batetik garatu: langileria egonkortuz eta ongizate saila berdintasun gaietan trebatuz; emakumeen, hauen seme-alaben eta haien kargu egon daitezkeen gainerako pertsonak artatzeko baliabideak ezarriz; GFAren, udalen eta biolentzia matxistaren kontra lanean diharduten elkarten arteko koordinazioa bermatuz; gazteekin elkarlan prozesuak bultzatuz.

- Transfobia homofobia edo lesbofobia moduko bestelako biolentzia matxistak ekidin eta artatzeko zerbitzuak garatu.

- Aisialdi, jai eta ospakizun parekideak sustatzen jarraitu Lurraldean zehar, parekidetasuna babesten duten lekuko elkarte eta taldeak babestuz, eta Alardeen gatazkaren konponbiderako bitartekoak jartzen jarraituz.

2.8.- LANKIDETZA

a) Nortasun eraldatzailea duen garapenerako lankidetzaren politika publikoa sendotzea; hau da, administrazioak berak hartzen duen politika hori planifikatzeko, kudeatzeko eta gauzatzeko erantzukizuna.

b) Nazioarteko elkartasunean, herrien autodeterminazioaren defentsan, gizarte justiziaren globalizazioan, emakumeen herritar eskubideen garapen ekitatiboan, herritartasun unibertsalean eta erantzukizun partekatuan oinarritzen den lankidetzaren politika integrala bultzatzea.

c) Eraldaketa subjektuak laguntzen dituen lankidetzaren politika bultzatzea.



d) Lankidetzaren politikak zehar-lerro hauek txertatuko ditu: genero ikuspegia, tokiko gaitasunen eta parte-hartzearen ikuspegia, giza eskubideen ikuspegia (eskubide linguistikoak barne) eta tokiko/globala ikuspegia.

2015-2019 legealdirako neurriak

1. Garapenerako **laguntzarako funts publikoen % 0,7ra** iristeko helburua mantentzen da, herritartasun globalaren eta herrien arteko elkartasunaren printzipioei jarraiki.

2. **Gizarte emantzipaziorako** hezkuntzaren garapenean sakontzen jarraitzea, emakume zein gizonen arteko ekitatea eta herrien arteko elkartasuna bultzatuko duten baloreak indarrean jarritz, alor honi eskaintzen zaion kopurua nazioarteko lankidetzari eskainitakoetako kantitateetara gerturatuz, eta horrela "ipar-hego" logika gainditzen saiatuz.

3. **Lankidetzaren politika publikotzat hartu**, hau da, administrazioak berak hartzen du politika hori planifikatzeko, kudeatzeko eta gauzatzeko erantzukizuna, bai eta politika horri jarraipena eta ebaluazioa egitekoa. Horretarako, hartzen da konpromisoa giza baliabide eta baliabide tekniko eta ekonomiko egokiak izateko.

4. **Garapenerako Gobernuaren Kanpoko Erakundeak lankidetzako eragile nagusiak izango dira**, eta ez dute diru laguntzarik jasoko irabazi asmoa duten enpresek edo, modu estalian bada ere, enpresa horiek bultzatzen dituzaketen ekimenek.

5. **Lehentasuna emango zaio emantzipaziorako gizarte mugimenduak lankidetzaren dinamiketan txertatzeari**, parekidetasuna oinarri izanda, eraldaketarako elementu estrategikoak baitira, eta lankidetzaren agenda osoarekiko gogoeta kritikoa sortuko da.

6. **Estatu gabeko herriekiko lankidetzaren** areagotuko da, emakume zein gizonen arteko herritartasun parekidea sustatuko duten neurrian, eta euskal gizartearen babesa dutenekin.

7. Bere lankidetzaren politikan, EH Bilduk giza garapen iraunkorraren paradigma erreferentzia bezala hartuko du kontzeptu dimentsioaniztuna duena, baina hazkunde ekonomikoari parekatzen ez zaiona.

8. **Euskal Fondoan parte hartuko dugu** aktiboki eta proiektu zehatzak babesteaz gain, erabaki guneetan EH Bilduren ikuspegia zabalduko dugu, erantzun estrategikoetan presentzia gehiago ahal izateko.

9. **Lankidetzaren politikoaren gardentasuna** bermatuko dituen neurriak hartuko dira. Deialdien eta ebazpenen publikotasuna eta zabalkundea ziurtatuz. Urteko jardueren memoriak argitaratuz.

2.9.- JATORRI ANIZTASUNA

Gipuzkoan dagoen jatorri aniztasunari dagokionez: %74,89 Euskal Autonomi Erkidegoan jaiotakoa da (hauetatik %71,80 Gipuzkoan bertan) %16,66 Espainian jaiotakoa da, %2,99 Europan,%3,69 Amerikan, %1,21 Afrikan, %0,55 Asian, %0,01 Ozeanian. Gipuzkoan jaiotako pertsonetatik %66,7k ditu gurasoak jatorriz gipuzkoarrak. Zentzu horretan aniztasuna nabariagoa da. Pertsona bat euskalduna izan dadin, borondatea izatea gailentzen da gainerako elementuen gainetik.

Migrazio eta Aniztasun saila 2011n sortu zen. Hasieratik, helburu garbi bat zuen, migrazio, eta, aniztasun arloan politika berri eta propio bat martxan jartzea. Politika berri honen oinarri ideologikoak honako hiru puntutan barnebiltzen dira:

- Herri honetan bizitzea erabaki duen pertsona oro da euskal herritarra
- Gipuzkoan eta Euskal Herrian jaiotako pertsona guztien eskubide berberak izan behar dituzte.
- Elkarbizitza da gakoa.

Legealdirako proposamenak:

1. Gipuzkoako Foru Aldundian, gainontzeko departamentu eta zuzendaritzekin batera, Aniztasuna eta Migrazioa zeharka lantzea ahalbideratuko duen **lantalde bat** martxan jartzea.

2. **Udalekin** baliabideak ekonomizatu, eta, eraginkortasun eta ildo komunen lanketa bat aurrera eraman. Horretarako hiru urrats planteatzen ditugu:

a) Gipuzkoako Udaletako Aniztasun mapa eratu. Udaletan Aniztasunaren arloan egindako lanketak, beharrak eta nahiak jaso.

b) Jasotako informazioaren irakurketa bat egin, eta, indarguneak, nahiz hutsuneak identifikatu. Udal langileak jarrera xenofobo eta arrazistak identifikatu eta saihesteko, trebatu.

c) Indarguneak eta hutsuneak kontutan hartuz, dauden beharrei aurre egingo dien neurriak proposatu. Neurri hauetan teknikarien kontratazioa bultzatu.

d) Udal eta Foru kontratazio eta esleipenetan, arrazismoaren eta xenofobiaren kontrako klausula soziala erantsi, batez ere lan esplotazioa eman daitekeen gunetean.

3. **Euskara guztion hizkuntza**, kohesiorako elementu izan dadin lanketa egin.

4. **Eskubide urraketen lanketa:**

a) Immigrazio legearen irakurketa kritikoa egin eta eskumen propioek ahalbideratzen dizkiguten neurriak aktibatu, herritartasun eskubideak babestuak izan daitezten.

b) Gizarte bazterketan dauden pertsonen errolda erraztu, bereziki etxebizitza egiazta ezin dezaketen herritarrena, protokoloak ezarriz horretarako.

c) Osasun sistemari dagozkion eskubideen inguruko hedapen lana egin, eta hauek errespetatuak izan daitezten, elkarlan instituzionala zein gizarte elkarrekin lan ildoak abian jarri.

d) Eskubideak lantzeko ikuspuntuaren inguruko hausnarketa bat jendarteratu. Gipuzkoar guztiak eskubide guztiak.

e) Jarrera xenofobo eta arrazisten aurrean erantzun protokolo bat martxan jarri. Aurreiritziak identifikatu eta hauei aurre egiteko, foru langileak trebatu. Zurrumurruei aurre egiteko behatokiak sustatu.

5. **Hezkuntzan Aniztasuna** lantzeko baliabideak sortu.

a) Maila ezberdinetarako Unitate Didaktikoak sortu.

b) Hezkuntzako profesional ezberdinekin, formazio eta sentsibilizazio saioak aurrera eraman.

6. **Kultur Aniztasunaren** berme eta aitortzarako neurriak:

a) Kultur adierazpen anitzen, hizkuntza minorizatuen, lekuan lekuko antolaketa politikoen, eta abarren inguruko topaketak antolatu.

b) Gipuzkoar herritarrak izaki guztiak, jatorri desberdinetako herritarren elkarguneak sustatu.



2.10.- LAIKOTASUNA

Laikotasuna ezinbestekoa da edozein jendarte guztiz demokratikoa eraikitzeko, eta administrazio publikoen lana da bide horretan aritzea. Era berean, Gipuzkoa laiko bat ezinbestekoa da giza eskubideei benetako bermea emateko. Oso bereziki sexu-eskubideei eta emakumeen eskubideei dagokienean; jendarte eta instituzio laiko batek eta ez bestek, bermatu baitezake askatasunaren, berdintasunaren eta aniztasunaren errespetua, Gipuzkoako jendartearen osasun demokratikoaren agerkaria izateko.

Laikotasunak erakunde publikoak eta erlijio ororekin lotutako jardunak bereizten ditu, erlijioa pertsonen esparru pribatura, partikularrera edo kolektibora mugatuz.

Eta beraz, Administrazio publikoen zeregina da pertsonak erlijioekiko duten jarrera askea errespetatu eta bermatzea, eta esparru pribatuan gauzatzen den jardunak irizpide demokratikoak gauzatzen dituela bermatzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, elizek eta bereziki eliza katolikoak, ogasunarekin duen harremana demokratizatze urratsak eman ditu, tartean erlijio-konfesioen zerga-onurek eta –salbuespenek, aplikagarri diren arau edo akordio guztietan oinarrituta, aurrekontu- eta zerga-legeria barne dela.

Ondareen izenpean eskuratze eskariak egin dira, bai eta OHZ (ondasun higiezin, landatar zein hiritarren gaineko zerga) ezartzeko proposamenak ere. Horrekin batera, herritarren zerga aitortzearen % 0,7a erakunde zibilei zuzentzeko kudeaketa burutu du Diputazioak, bere eskumenean baita.

Gipuzkoako Foru Aldundia bidelagun izan da ospakizun zibiletarako udal-ordenantzak osatzeko garaian.

2015-2019 Legegintzaldirako NEURRI ZEHATZAK

1. Egoitza Santuarekin 1979an Españaiko gobernuak eginiko **konkordatua bertan behera** ezartzeko eskaria luzatu dagokien organoei.

2. Horrela ebazten duten udalek ahalmena izan dezaten **OHZ** (ondasun higiezin, landatar zein hiritarren gaineko zerga) **ezartzeko** eliza katolikoaren, haren erakundeen, irakaskuntza eta erlijio-proselitismo zentroen izenean, hauek guztiak zentsatu eta erregistraturiko ondasunen errebisioa egin.

3. Lurreko ondare historikoaren mantenuarekin lotutako **laguntza lerroak, eraikin horien erabilera publikoaren baitan kokatu.**

4. Diru-laguntza zein esleipen deialdietan, **laikotasun klausulak** onartu eta aplikatu.

5. **Ospakizun zibilei** lotutako araudiak eta espazioak sortzeko, behar adina azpiegitura eta laguntza eskaini.

6. **Erljio ororekin lotutako iruditeria eta ospakizunak, instituzio publikoaren eta ordezkari publikoen jardunetik atera.**

7. Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatu edota bertaratu parte hartuko duen ospakizun oro, **izaera zibilekoa** izango da.

8. Lurreko jardunean laikotasuna eta herritar, kolektibo zein herrien oinarritako giza eskubideak bermatuko dituen **Laikotasunaren Behatokia** sortu.

2.11.- ANIZTASUN SEXUALA

Ez dago sexualitatea bizitzeko modu bakar eta "normalik", hau da, gizon eta emakume gisa garatzeko eta bizitzeko modu bakar bat. Emakumezkoak emakume diren heinean baloratu behar dira (emakume izateko modu ugari eta anitzak daudela onartuz) eta gizonezkoak ere gizonezko diren heinean baloratuko dira (gizonezko izateko modu ugari eta anitzak daudela onartuz).

Araututako harremanen ordena eraldatu behar dugu, eredu patriarkal eta puritanoak inposatzen dituen gizon-emakume, maitasun, erotika, harreman eskernak gaindituz.

Harreman eta erotiko Aniztasuna duin bilakatu eta babestu behar dugu, heteronormatibitatea eta maitasun-erromantiko harremanen mitoak gainditzeko lan eginaz. Berezitasun erotikoak ez dira patologikoak ez eta anormalak ere. Aniztasun erotikoaren adierazpena dira.

Elkarbizitza eta elkartasuna bultzatuko duten ekintza eta politikak garatzea ezinbestekoa da, gizon-emakumeek askatasunean aukeratutako bizitza moldea diskriminatu, zanpatu eta epaituko duten jarrerak baztertuaz.

Eskuartean dugun lanabesik garrantzitsuena heziketa da, gizon emakumezkoak izaki sexudun eta anitzak garena ulertu eta errespetatu arazteko. Formazio inklusibo, unibertsal eta plurala ematea ezinbestekoa da.

2015-2019 Legealdirako proposamenak:

1. Foru Arauetan eta ordenantzetan jasoko dugu zentro eta zerbitzu publikoetan desioaren orientazioa, sexualitatearen espresioa eta harremanetarako askatasuna errespetatuko denaren bermea jasoa egon behar dela. Horretarako, zentro edota zerbitzu publikoetan lanean ari den pertsonalari aniztasun sexuala errespetatzeko eta artatzeko formazioa eskainiko diegu.

2. Zerbitzu pribatuen jarduera baimenetarako edo bestelako baimenetarako baldintza eta klausula gisa jasoko dugu desioaren orientazioa, sexualitatearen espresioa eta harremanetarako askatasuna errespetatuko dela.

3. Sexualitate aniztasuna eta harremanetarako aniztasuna ikustarazteko eta horien errespetua sustatzeko, zentro publikoetan ekimen ezberdinak garatuko ditugu: hitzaldiak, erakusketak, ikus-entzunezko proiektzioak, dibulgazio eta formaziorako jarduerak...

4. LGTBI haur eta gazteen autoerrekonoizimientua eta autoestimua bultzatzea bideratutako programak gauzatu ditugu.

5. LGTBI haur eta gazteen eskubideen eta askatasunen alde zein haien enpoderamendua sustatzen duten elkarteak mantentzeari eta sortzeari bultzada emango diegu (gazteek beraiek sortutako elkartei arreta berezia eskainiz).

6. LGTB haur eta gazteen enpoderamentua eta parte-hartze publikoa eta politikoa bultzatuko ditugu eta aztertu nahi duten neurriak indarrean jarriko ditugu (adibidez, kolektiboak eta elkarteak herri parte-hartze organoetan izatea).

7. Sexualitate aniztasuna eta harremanetarako aniztasuna errespetutik, inklusiotik, eskubide errespetutik eta ezberdintasunaren errespetutik lantzen duten kultur jarduerak (antzerkia, zinema, erakusketak...) bultzatu eta kontratatu eta erakutsiko ditugu. Horren kontra aritzen direnak, berriz, ez ditugu kontratatuko instituzio publikoetatik.

8. Sexualitate anitzen, harremanetarako aniztasunaren eta LGBTQ arloko gaietarako atal berezia jarriko ditugu udal liburutegietan edo Aldundiarenak diren liburutegietan.



2.12.- GAZTERIA

Gazteriak krisiaren eta, oro har, sistemaren ondorio latzak modu berezitan pairatzen ditu, eskubideen murrizketa eta prekaritatea modu berezian jasaten ditu. Sektore espezifikoak den heinean, beharizan espezifikoak ditu eta, ondorioz, gazte problematikari, beharriaz zein eskubideen bermeari modu berezitan erantzun behar zaie.

Egoera prekario honetatik ihes egitea, egunez egun, zailago bihurtzen ari da. Oztopoak, oro har, handiagoak dira, eta emantzipazio aukerak ere murriztagoak. Beste kasu batzuetan, adibidez, emantzipatzeko aukerak dituzte, baina hain testuinguru ezegonkorrean egonda, ezin dute bermatu epe motz - ertain batera ere, eurek lortutako egoera mantenduko denik.

Egoera honi aurre egiteko, erakundeek sektore honi berebiziko garrantzia eta arreta eskaini behar diote. Sektore honen ikusgaitasun eta ahalduntzean lan egin behar dugu, eta egoera honetatik aurrera ateratzeko baliabideak eskaini.

Populazio sektore hau jendarte honek osatzen duen giza kapitala da dagoeneko, eta etorkizun batean ere horixe izaten jarraituko du. Ezin dugu inolaz ere ahaztu, eta ezin gara "tiritak" jartzen ibili. Politika integralak aplikatu behar ditugu, haur, nerabe eta gazteen beharrei soluzioa emango dienak.

Aurreko urteetan, berdintasunari zein parte hartzeari berebiziko ahalegina eskaini zaien lez, datorren legegintzaldian, gazteriaren sustapenak ere, leku estrategikoa bete beharko du.

Gipuzkoan bizi diren haur, nerabe eta gazteek bizitzeko baldintza egoki eta duinak izan ditzaten laguntzea izan da GFAk lau urteotarako jarri zuen helburu nagusia. Honen bidez lortu nahi izan dugun helburua da haur eta gazte horien garapen osoa erdietsi eta haien eskubide guztiak berma daitezen sustatzea, Gipuzkoako Lurraldean lan egiten duten gainontzeko eragileekin batera.

Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiko Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzuak, "Gaztematika" gazteen politikak barneratzen dituen sistemaren garapenean, apustu irmo bat egin zuen. Argi genuen, legeriarik ez duen arlo batean, GFAk udalekin batera sare bat garatu behar zuela, lurralde osoan dauden eragile (instituzio, elkarte, talde, ...) guztiok norabide berean lan egin genezan.

Lau urte hauetan egindako lanaren balorazioa positiboa bada ere, argi dugu Gaztematikaren garapenean lan asko egiteke dagoela, eta gazteek bizi duten egoera prekarioa dela eta, denborak gure kontra jokatzeko duela.

Hori dela eta, datorren legegintzaldiari begira, gazteen beharretan arreta nagusia jarri behar dugu, eta hasitako lanari, bultzada bat emanez, irtenbide errealak mahai gainean jarri behar ditugu.

Hori lortzeko, neurri / ekimen pakete bat proposatzen dugu. Horietako batzuk martxan daude, beste batzuei bultzada berezia eman beharko diegu, eta beste batzuk abiatzeke, beraz, lehenbailehen aktibatzea ezinbestekoa izango da.

2015-2019 Legegintzaldirako NEURRI ZEHATZAK

1. Gazte politiketan, haur, nerabe eta gazteen parte hartzea txertatu, oinarritzko osagai gisa.
2. Berdintasun, Euskara, Parte hartze eta aniztasun zerbitzuekiko lana lehenetsi, haur, nerabe eta gazte espazio guztietan lan egin ahal izateko.
3. Tokian tokiko gazte politikak sustatzeko udalekin elkarlaneko sarea sustatu eta indartu. Era berean, haur, nerabe eta gazteen udal ekipamenduetarako laguntza plana ezarri.

4. Gazteen, Gazte taldeen, elkarte eta, oro har, sektore honetako eragileen ekimenetan laguntzeko baliabideak jarriko dira.

5. Herri zein hiri eraikuntzan, haurren ikuspegitik "Haurren hiria" sortu daitezkeen udal ekimenak bultzatu eta sustatu.

6. Ogasun departamentuarekin elkar lana sustatu, enplegu zein etxebizitza gaietan, gazteek bizi duten egoerari aurre egiteko.

7. Europan zein munduko beste lekuetan, lan edota ikaste proiektuak (hezkuntza formal zein ez formalekoak) aurrera eramaten lagundu. Erasmus + ekimeneko programetan lidergoa hartu

8. Tokiko garapen proiektuetan gazteen parte hartzea bultzatu, gazteriaren ikuspegia txertatua geratu dadin. Gazte ekintzailtza bultzatzeko bitartekoak jarriko dira. Ildo honetan, gazteen lidergorako garapen programa bat egingo da, euren aldaketaren protagonistan izan daitezen.

9. Gazteei zuzendutako ekimen, zerbitzu eta programetako eskaintza euskaraz izango dela bermatu. Era berean, programa hauetan Euskal Herria ezagutzea, eta herri honetako herrialde ezberdinetako haur, nerabe eta gazteen arteko ezagutza eta harremana bultzatuko da.

10. Lurraldeko kultur ekimenetan haur, nerabe eta gazteentzako guneak sortu, (Donostia 2016 edo Tabakalera), non hauek ekimenetako protagonistak izango diren.

11. Aterpetxeen eskaintza eta sarea hobetuko da. Horretarako, gaur egungo aterpetxe ereduak aldatuko da, zeinak, benetan, gazteen beharrezko erantzunak ematen dituen. Aterpetxeak, ere, sorkuntzarako zein parte hartzeko guneak izango dira. Era berean, aisialdi talde, gaztetxe, kolektiboentzat... aterpetxeetako prezio jasangarriak ezarriko dira.

2.13.- KIROLA

EH Bildurentzat kirola eskubide bat da, edozein pertsonaren garapen integralerako zein gizarte kohesiorako beharrezko elementua. Gipuzkoar orori bermatu behar zaizkio kalitatezko kirol praktikorako aukera berdintasuna eta baldintza duinak. EH Bilduren ustez ezinbestekoa da kalitatezko kirolaren sustapena eremu eta maila guztietan (eskola kirola, kirol ez federatua, federatua eta errendimenduzko kirola).

Kalitatezko kirola sustatze aldera, hezkuntza prozesuaren adin guztietan heziketa fisiko eta kirol-aukerak hobetu eta zabaltzearen aldeko apustua egiten du EH Bilduk, arreta berezia jarriz adin txikikoen artean kirola sustatzean. Gainera, kirol hezitzaileen etengabeko formazioaren alde ere jotzen du.

Kirola funtsezko elementutzat du EH Bilduk Euskal Herriaren kohesio, egituratze eta nazioaren garapenerako. Hots, kirolaren bitartez nazio identitatea eta gure sinboloak suspertuko ditugu, euskararen normalizazioan urratsak emango ditugu, euskal kirol eredu propioa egituratzeko giltzarriak diren egiturak (federazio, elkarte...) eta lehiaketa markoak definitu eta egituratuko dugu. Zentzu honetan ere, herrialdeen arteko kirol estrategia eta ekintzak partekatuko ditu.

EH Bildurentzat kirol politikaren ardatza ez da bakarrik izango instalazioen zerbitzuen kudeaketa. Aitzitik, haratago doa: herritar aktibo, eraldatzaile, emantzipatzaile, ez sexista eta kritikoa sustatzea da kirol politiken bitartez. Horretarako, EH Bilduk Eskola Kirola, kirol federatua eta instalazioen erabiliko ditu tresna gisa.

2015-2019 legegaldirako proposamenak:

1. Aliantza estrategikoak bilatuko ditugu kirol erakundeekin, Gipuzkoakoa gizarte aktiboa izan dadin.



2. Eskola kirolaren ereduaren azterketa egingo dugu eragile guztiekin (elkarte, guraso, federazio...) partaidetza prozesu baten bidez.

3. Eskola kirolaren egungo eskaintza sendotzeko neurriak martxan jarriko ditugu, hezkuntza, osasun eta jolas osagaiak azpimarratuz, gizarte egoera ahulenean daudenen praktika handitzeko eta emakumeen eta etorkinen kirolaren eta kirol egokituaren kasuan egun dauden desberdintasunak murrizteko, gizarte kohesioaren eta euskararen erabileraren normalizazioaren alde eginez.

4. Gipuzkoa mailan eta baita eskualdez eskualde kirol instalazioen plangintza egingo dugu, bere arrazionalizazioa, jasangarritasun ekonomiko eta soziala bultzatzeko. Plangintzarekin, gainera, gure kirola bultzatzeko neurriak ezarriko dira.

5. Talde erreferenteetan diru laguntzak emateko eta kirol taldeen osaketaren garaian harrobiaren sustapena, parekidetasuna eta euskara irizpideak kontuan hartuko ditugu.

6. Emakumeen kirol praktikak bisibilizatzeko eta sustatzeko neurriak bultzatzen jarraituko dugu.

7. Kirol minorizatuak laguntzeko esfortzu berezia egingo dugu, hauek babesle pribatuen aldetik laguntzak jasotzeko aukera gutxiago baitituzte.

8. Kirol profesionala eta ikuskizun kirolarekin lankidetzat bideratuko ditugu, baina laguntzak, beti ere, partaidetza-kirola edo eskola-kirolaren sustaketarako bakarrik izango dira.

9. Eraitza apartak dituzten kirolarientzat laguntza berezia, baita beraien entrenatzaileentzat ere.

10. Pilotaren beste plan estrategiko bat bultzatuko dugu.

11. Herri kiroleko bailararako eskolak bultzatzen jarraituko dugu.

12. Mugikortasun departamentuarekin koordinaturik, Gipuzkoan Bide Ez Motorizatuen sarea osatzeko neurriak hartuko ditugu.

13. Gipuzkoan unibertsitate kirola sustatzen saiatuko gara unibertsitate ikasketak dituzten udalerrietako zerbitzuekin hitzarmenak sinatuz. Aldi berean, unibertsitateen artean ere lehiaketak eta partaidetza jarduerako egoteko ekimenak sustatuko ditugu.

GIPUZKOARROK

garaile!

con  ehbildu ganamos todas

 ehbildu



GIPUZKOARROK
garaile!
con  *ganamos todas*



@ehbildugipuzkoa



EH Bildu Gipuzkoa



gipuzkoa@ehbildu.net